

Zornotzako hainbat emakumek Besue proiektua ipini dute martxan. Luis Urrengoetxea kalean hutsik egondako lokal bat alokairuan hartu, eta eskaintza kulturala lantzen hasi dira euskara zein emakumeen sorkuntza hauspotzeko. Gune mistoa da, gizonezkoek ere badute bertan parte hartzeko aukera, baina emakumeak dira proiektuaren kudeatzaileak. Irati Lejarraga, Amaia Urkiaga eta Izaro Gastelu dira kudeaketa taldean dauden ki-deetariko batzuk. • 5

Euskara, kultura eta emakumeen sorkuntza batzeko gune berria: Besue



'Trenean ekarritakoak' dokumentala estreinatuko dute

Erreportajea • 50eko eta 70eko hamarkadetan Andaluziatik, Gaztelatik, Extremaduratik eta Galiziatik etorritakoen testigantzak batu ditu Txelu Angoitiak. • 2-3



Promesarik onenekin, hastear da Biharko Izarrak txapelketa

Pilota • Mallabiko pilota txapelketan 16 mutil arituko dira binaka, eta 4 neska lau eta erdian. Bietan joko sistema bera erabiliko dute. • 20

Gazteria ortugintza ekologikotik bizitzeko bide berrien bila

Berriz • Jon Berasaluze durangarrak eta Ander Zorrakin elorriarrak ortugintza ekologikotik bizitzeko proiektua hasi dute. Berrizko lursail batean hiru urteko proiektua garatuko dute, ortugintza ekologikotik bizitzeko bideak ikertu eta barazkiak merkaturatzeko. Proiektuak Durangaldea Haztegia du izena. • 10





Eneka Irigoras, Antonio Toledo eta Celsa Rodríguez, jesarrita; Txelu Angoitia eta Maria Alarcón, zutunik.

"Etorrera gogorra izan arren eta gerora ere mila istorio izan zuten arren, etortzeagaz bilatzen zutena lortu zutelakoan nago"

Txelu Angoitiaren 'Trenak ekarritakoak' estreinatuko dute gaur; protagonistetarikoz batzuek dokumentalaren nondik norakoak aletu dituzte ANBOTOrentzat

ERREPORTAJEA • ARITZ MALDONADO

Celsa Rodríguez hamalau urte gaz heldu zen Galiziatik Durangora; orain 79 ditu. Durangon ez ezik, Bartzelonan, Suitzan eta Donostian ere bizi izan da, baina, batez ere, Iurretan (garai hartan Durango) zabaldu zuen Novedades Celsi dendagaitik [Celsi izenagaz ezagutzen dute] da ezaguna. Dendatik soilik ez, Andaluziako etxetik ere gogoratzen du Maria Alarconek Celsi Rodríguez. María hogeita bi urte gaz heldu zen Durangaldera, ezkondu eta hilabetera; urte bian Abadiñon egon zen bizitzen, Durangon erosi zuen etxea amaitu bitartean. Antonio Toledok ere auzoagaz lotzen du Celsi: "Dendatik gogoratzen dut". "Zure gurasoak itzelak ziren", nabarmendu dio Rodríguez. Antonioren emazte Eneka Irigoras ere batu da solasaldira. Durangarra sortzez, berak ere parte hartu du dokumentalean. "Hemen, parte hartu duten guztiek egin dute euren ekarpena, bakoitzak bere ikuspuntutik", azpimarratu du Txelu Angoitia. "Hona ailegatzeko prozesua zelakoa izan zen kontaktzen du

batek; besteak, zelako bizimodua izan duen. Denek berdinari buruz berba egiten dute, baina bakoitzaren ikuspuntua desberdina da. Collage moduko bat egin dugu, eta migrazioaren fenomenoaren ideia orokor bat eraikitzen ahalegindu gara", azaldu du Angoitia.

Bederatzi durangarregaz izandako solasaldiak batu ditu Angoitia dokumentalean

Argazkilari durangarrak *Trenak ekarritakoak* dokumentala ondu du Durangoko Udalaren laguntzagaz, eta gaur estreinatuko dute dokumentala, Plateruenean egingo den ekitaldian.

Ikus-entzunezko lanean, 50eko eta 70eko hamarkadetakoa migrazio mugimenduek Durangon izandako eragina erakutsiko da, horretarako bederatzi protagonista batuta. Angoitia zuzenduriko lanerako Durangoko Arte

eta Historia museoan elkarriketatatu zituzten protagonistak, eta orain ere han batu dira. Urduri daude estreinaldirako, izan ere, oraindik ez dute ikusi lanaren emaitza. "Fenomeno honetako protagonistak islatuta ikusten badira, arrakastatsua izango da", aitortu du Angoitia.

"Herri bi"

Toledoren senideak, adibidez, 60ko hamarkadan heldu ziren Durangora, garaiko eztabaida migrazioaren erdian. "Auzoetan egiten zen bizitza; jendeak auzoko dendetan erosten zuen, eta fidantzan saltzen zen, herritarrek ez zirelako hile amaierara heltzen. Enpresetako prentsen zarata, euria... ere ondo gogoan ditut", esan du Toledok. Enpresetara oinez edo bizikletan zihozten herrikideak ere gogoratzen dituzte. Hirurek "gris" gogoratzen dute garaiko herria, baina bere alde onagaz ere, jakina. "Gerraosteko Espainia ilun horretatik ihesi etorri ziren nire gurasoak, miseriari ihesi. Adinak ematen dizun

perspektibagaz ikusita, etorrera gogorra izan arren eta gerora ere mila istorio izan zuten arren, bilatzen zutena lortu zutelakoan nago. Ez dakit zelako ekarpena izango den nirea, baina horregaitik berba egin dut dokumentalean", azaldu du Toledok. "Ni oso pozik nago

Egungo migratzaileekiko enpatia sortzea gustatuko litzaike euren ekarpenagaz

hemen, hiru seme bertan jaio dira eta dokumentalaren ideia ere bikaina iruditu zait", gehitu du Alarconek. "Harategira joan, adibidez, eta kanpotarrak ginela esaten ziguten. Baina herrira bueltatzen ere, kanpotik etortzen ginela esaten ziguten. Ez zen erraza", gogoratu du Celsi Rodríguez irribarretxo batez. *Eta zu, nongoa zara?* eta halako galdera sinple baten aurrean erantzuna korapilatu izan zaiela aitortu dute. "Baina, herri

bi ditugu", jarraitu du irribarretsu Rodríguez.

Egungorako lagungarri

Bere sorterrira nekez uzten du sustraiak han dituenak idatzi zuen Joseba Sarrionandiak. Horrela iruditzen zaie ere solasaldiko protagonistei. "Orain ere mugimendu migratzailea handia da, jende asko dator hona bizimodu hobe baten bila, eta, aldi berean, jende asko dabil hemendik joaten lan baldintza hobeen bila, besteak beste", gehitu du Eneka Irigoras. "gerratik edo miseriari ihesi egin behar izan dutenek ere bai". Horrela, itxaropentsu agertzen dira dokumentalak egin dezakeen ekarpenagaz. "Inork ere ez du bere lurra atzean uzten kapritxoagaitik, eta garrantzitsua da helitzen zaren lekuan gustura egotea. Ahal dudana neurrian, beti eskainiko diot laguntza behar duenari", dio Rodríguez. "Balio dezala egungo egoera ulertzen laguntzeko". "Pertsonak beti gaude mugimenduan, eta horrek ika-mikak eragin ditzake, baina baita gauza politak sortu ere", borobildu du Angoitia.

50eko eta 70eko prozesu migratzaileetan etorritakoei aitortza

Jon Maia bertsolariak aurkeztuko du dantzak, musika eta dokumentala batuko dituen ekitaldia; 19:00etan hasiko da, Plateruena kultur aterpean

ERREPORTAJEA • A. M.

"Zauriz eta aurreiritziz beteriko gaia da, baina beharrezkoa da horrelako gaiez hitz egitea; zorionez, hori normaltzen ari da", azaldu zuen Jon Maia bertsolariak *Trenak ekarritakoak* dokumentalaren aurkezpen agerraldian. "Migrazio hori ere errelatoan sartu beharra dago", nabarmendu zuen. Gaur estreinatuko dute Txelu Angoitiaren *Trenak ekarritakoak* dokumentala; estreinaldia borobiltzeko ekitaldia egingo dute, 19:00etan, Plateruena Kultur Aterpean, eta Maiak berak aurkeztuko du. 1950eko eta 1970eko hamarkadetan Andaluziatik, Galiziatik, Gaztelatik eta Extremaduratik Durangora ailegaturikoak omendu gura ditu Durangoko Udalak ekitaldiagaz eta dokumentalagaz. "Gaurko Durango ezin da ulertu bere iraganari zein gurasoen eta aitita-amamen historiari erreparatu barik", azaldu zuten aurkezpenean. "Oraingoan omenduko ditugunak ez dira hona etorri diren bakarrak, baina komunitate hauei zor genien aitortza hau. Durango ulertzeko,



Joan zen astean Durangoko Udalean egindako aurkezpena.

beharrezkoak dira", gaineratu zuten. Pertsonak ez ezik, elkarte eta integrazio prozesuetan parte hartu zuten Kultur Etxeen laguntza ere eskertu eta aitortu gura dute. Aurkezpenean, Kultur Etxeetako ordezkari batzuek berba egin zu-

ten. Extremadurako Kultur Etxeko presidente Luciano Lorenzok, adibidez, aita izan zuen gogoan: "Ziur nago oso ekitaldi polita izango dela, eta aita bizirik egon balitz emozionatu egingo zen". Dokumentalak 40 bat minutu iraungo

du. Bederatzi lagunegaz izandako solasaldiak agertzen dira bertan. "Prozesu migratzaileak lazgarriak dira, baina hortik ere ikasi daiteke" azaldu zuen Angoitiak. Jon Maiak ere aurrera begirako mezu batez amaitu zuen aur-

kezpena: "Etorrizuneko erronkei eusteko beharrezkoa da jakitea nondik gatozen, ezagutzea gu nortzuk garen. Zergatik naiz ni horrelakoa? Identitatearekin konfliktu asko eduki dut nik, eta beharrezkoak dira norbera ondo ezagutzeko".

Dantza eta musika

Ekitaldia 19:00etan hasiko da eta bertan musika eta dantza egongo dira, dokumentala ikusteko aukeraz gainera. Elkarlana bultzatu gura izan dute honetarako, gainera. Horrela, Aritz Lasarguren dantzari durangarrak eta Andaluziako Kultur Etxeko La Jara taldeak dantzan egingo dute elkarregaz, Lasargurenek berak ekitaldirako prestatu duen pieza bat; La Jara Cristina Luengok, Elisabeth Luengok eta Andrea Hernandezek osatzen dute. Musikari dagokionez, Xabier Aburruzaga trikitilariak eta Gaspar Rodríguez gitarrista flamenkoak *Bidaia* ikuskizuna taularatuko dute. Xabier Aierdi soziologian doktoreak ere parte hartuko du.

BETI GERTU!

ELORRIORA

HEMENDIK

Begiratu aukerak gure webgunean:

www.zarateyelexpe.com

Tel.: 946 816 673

Bixente Kapanaga 19, beh. 48215, lurreta

Lore-eskaintza egingo diote Juan Uriberi, Martxoaren 31ko ekitaldian

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durango Udalak eta Geredi- ga elkarteak Martxoaren 31ko oroimen ekitaldien programa aurkeztu dute. Ekitaldi nagusian, Martxoaren 31n bertan egingo den lore-eskaintza, Juan Uribe omen- duko dute, orain 86 urte izandako bonbardaketan lekukoa. Lore-es- kaintza, urtero legez, Andra Mari- ko elizpean egingo dute, 19:30ean. Aurtengo programazioak, baina, berrikuntzak ditu. Batetik, Oro- men Gunearen inaugurazioa dago. Jesus Rodríguez Jauregi artistak

eskultura bat ipiniko du Duran- goko hilerrian, bonbardaketaren ondoren hobi komunetan lurpe- ratu zituztenen oroigarri modura. Bestetik, transmisioaren gaia dago; herriko belaunaldi berriei gerta- turikoa azaltzeko eta memorian iraunarazteko ekintza sorta.

Gerediaga elkarteak Azarnak ibilbide gidatua landuko du he- rriko ikastetxeetako ikasleekin. Elkarteak kide den Goitz Pelaezek aurreratu du ekintza horretan Lehen Hezkuntzako 4. eta 5. mai- lako, DBHko 4. mailako eta Batxi-

lergoko 2. mailako ikasleek parte hartuko dutela. Horrez gainera, Unai Iturriaga eta Alex Sanvi ko- mikigileek *Udaberririk ankerrena* komikia landuko dute DBHko, Ba- txilergoko eta Lanbide Heziketako ikasleekin. Saioak Plateruenean egingo dituzte. Suargi elkarteak, bere partetik, *Kobane eta Durango, bi herri, bi bonbardaketa* hausnarketa saioak egingo ditu ikastetxeetan.

Udal agintariek "memoria his- torikoa lantzen eta aldarrikatzen" jarraituko dutela adierazi dute prentsaurrekoan.



Durango Udalak egunean egin zuen erakusketaren aurkezpena.

Jose Manuel Rozasen erakusketa Durango Museoan ikusgai

Margolari eta eskultore bilbotarraren lanekin 'Berpizkunde' erakusketa antolatu dute

DURANGO • JONE GUENETXEA

Jose Manuel Rozas artistaren heriotzetik 40 urte bete diren honetan, Durango Arte eta Historia Museoak bere lanen bilduma bat batu du *Berpizkun- dea* izenburupean. Artistaren ibilbidea ezagutzeko lanak kro- nologikoki sailkatu dituzte. Erakusketaren aurkezpenan

azaldu dutenez, "Rozasek, bere mihisetako protagonistek lez, anonimotasunetik denboraren iraganaren eta ahanzturaren aurka egindako borroka ikusiko dugu".

Erakusketa martxoaren 24tik maiatzaren 21era egongo da ikusgai, Durango Arte eta Historia Museoan.



Bonbardaketako argazkia. GEREDIAGA ELKARTEA



Martitzenean egin zuten Tontolapiko Egunaren aurkezpena.

Tontolapiko Eguna antolatu dute apirilaren 7rako; Durango Aurora Abasolo parkean izango da

laz izandako arrakasta ikusita, aurten ere umorez beteriko egitaraua antolatu dute

DURANGO • ARITZ MALDONADO

Apirilaren 7an egingo duten Tonto- lapiko Eguna aurkeztu dute Duran- gon. Udalak, San Agustin kulturgu- neak eta Ganso & Cia konpainiak antolatu dute ekimena. Adin guz- tietarako umorezko ikuskizunak egingo dituzte egun osoan zehar, Aurora Abasolo parkearen ingu- ruetan.

"Denok daramagu inozo bat barruan, norbait tuntuna, baina ez- kutatzen ahalegintzen gara; apiri-

laren 7an, baina, guri erakusten di- gun jendea dago", azaldu du Gorka Gansok. Iazko arrakasta errepika- tzeko helburua dutela azaldu dute Ane Abanzabalegi eta Jorge Varela zinegotziek. Prentsaurrekoan azaldu dutenez, "Aste Santuan Durango ez da geratuko umorerik eta pailazokeriarik barik".

Arantza Arrazola San Agustin kulturguneko arduradunak egi- tarauaren barruko Los Galindos konpainiaren MDR ikuskizuna

nabarmendu du; kulturguneak bere 25. urteurrena dela-eta jaial- diari egin dion "ekarpena" izan da. Ikuskizun hau ere doakoa izango da, baina egunean bertan sarrera erreserbatu beharko dela azaldu dute.

Horrez gainera, zuzeneko mu- sika —The Farra Marching band taldeagaz— eta foodtruck bat —Kemekomo— egongo dira. Euria eginez gero, Landako Gunean egingo dute jaialdia.

anboto

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2023ko martxoaren 24a
21. urtea - 930. alea

Lege gordailua:
BF-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale

2015 **Bikain**

PEFC **PEFC**
PEFC14-36-0025

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



Joan zen zapatuko mobilizazioa, Andra Marian.

Arrazakeriaren kontra mobilizatu dira Durangon

Durangaldeko hainbat eragile eta norbanako Andra Mariko elizpean batu zen joan zen zapatu arratsaldean

DURANGALDEA • E.H.

Martxoaren 21a Arrazakeriaren Kontrako Nazioarteko Eguna da. Data hori oinarri hartuta, Durangaldeko hainbat eragile Andra Mariko elizpean batu zen zapatu arratsaldeko mobilizazioan.

Pankartak zabaldua arrazakeriaren kontrako mezuak zabaldu

zizutzen kalean. Eskualdeko honako eragile hauek egon ziren mobilizazioan: Ghana United, Virgen del Cisne, Ceiba, Andereak, Ongi Etorri Errefuxiatuak plataforma, Zaldibarko Jendeak, Atxondoko Harrera, Hemendik Harantz, Durangoko Parte Hartze Tailerra eta Zabaltzen Sartu.

Next Generation laguntza europarrak eskatu dituzte Nafarroa Zentrorako

Azpiegitura "eraikin jasangarri" bihurtu gura du udalak

ZORNOTZA • J.G.

Nafarroa Zentroa eraikin "jasangarriagoa, irisgarriagoa, bizigarriagoa eta seguruagoa izan dadin, eta kontserbazio bermea izan dezan", Zornotzako Udalak beharrezko dokumentazio tekniko aurkeztu du Next Generation Europako funtsetara, Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioak oraintsu argitaraturiko Toki Erakundeentzako Eraikin Publikoak Birgaitzeko Sustapen Programaren

Laguntzei buruzko lehiaketa lehiakorrera.

Horrela, energia primarioaren kontsumo ez-berriztagarrian %30eko aurrezpena lortzeko behar diren irtenbide energetikoen azterketa izango du kontuan lehiaketak. Nafarroa Zentroa osorik eraberritzeko aurkeztu den aurrekontua 3.505.386,48 eurokoa da. Udalak laguntza jasoko balu, diruz lagunduriko zenbatekoa 2.581.259,32 eurokoa izango litzateke



Anartz Gandiaga eta Alnhua Salterain zinegotziak.

“Euskara eta emakumeen sorkuntza kulturalak batzeko eta erakusteko espazioa da Besue”

Zornotzako emakume talde batek Besue proiektua sortu du, euskarari eta emakumeen kultur sorkuntzei hauspoa emateko. Lokal berria zabaldu dute, Luis Urrengoetxea kalean



Irati Lejarraga, Amaia Urkiaga eta Izaro Gastelu dira Besue proiektuko talde eragilean dauden kideetarikoz batzuk.

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Aspaldi Aldazabal harategia izandako lokala euskararen eta emakumeen kultur sorkuntzen topaleku da orain. Zornotzako hainbat emakumek Besue proiektua sortu dute han: Bertoko Emakume Sortzaileen Uztarako Etxea. Egitarau kulturala martxan dute eta egitasmo bazkide egitera deitu dituzte herritarrak. Eremuan gizonetako ere parte hartu dezaketen arren, emakumeak daude proiektuaren gidaritzan. Amaia Urkiaga Egidazuk eta Izaro Gastelu Urizarbarrenak azaldu dituzte proiektuaren nondik norakoak.

Zerk eraman zaituzte Besue proiektua sortzera?

Izaro Gastelu Urizarbarrena: Zornotzako erdigunean horrelako leku baten falta zegoela igartzen genuen. Emakume sortzaile asko dago hemen. Batek belarritakoak egiten dituela, besteak antzerkia lantzen duela... azken finean, ikusi genuen sorkuntza kultural horiek guztiak batzeko eta erakusteko espazio bat sortzea aukera polita izan zitekeela.

Amaia Urkiaga Egidazu: Hiru dira proiektu honen oinarri nagusiak: kultura, emakumea eta euskara. Batetik, eremua mistoa da, gizonetako ere sartu daitezke, baina emakumeak gara kudeaketa taldea gidatzen dugunak. Kultura bere aniztasunean landu gura

dugu, bere zabaltasunean. Antzerkigintza, musika, literatura... ez diogu ezeri ezetik esaten. Eta, euskarari dagokionez, argi dugu euskara hutsean lan egin gura dugula. Zornotzan beharizan bat dago euskara erdigunean ipini eta herriari begirako proiektu

Antzerkia, musika zein literatura izan, kultura bere aniztasunean eta zabaltasunean landu gura dugu

bat sortzeko. Gazteria euskarara hurbiltzeko modu bat ere izan daiteke Besue.

Proiektua martxoaren 3an inauguratu zenuten. Zelakoak izan dira lehenengo asteak?

A.U.E.: Inaugurazio egunean, norberak etxetik ekarritakoekin mokatutxo egin genuen. Martxoko martitzen iluntzetan euskal dantzen ikastaroa ematen gabiltza. Oso giro polita sortu da, oso gustura gaude.

I.G.U.: Bai, horrez gainera Mindfulness tailerra egin dugu, eta Derioko Marikobaso proiektua ezagutzeko aukera ere izan dugu. Proiektu horretako kideak hemen izan ziren Marikobaso zer den aurkezten.

A.U.E.: Apirila eta maiatza indartsu datoz. Umeentzako ekintzak izango ditugu Aste Santuan. Eskulanak, tailerrak eta zientzia tailer bat. Bestalde, Amaia Astobiza itzultzaile zornotzarrak *Putz zikinak* liburua aurkeztuko du Besuen. Eta euskal dantzek harre-ra ona izan dutela eta, egitasmoa luzatu egingo dugu. Zornotzako sorkuntzek zein kanpokoek, denek dute lekua.

Zelan finantzatzen duzue proiektua?

I.G.U.: Nagusiki, bazkidetzari eskerrak. Bazkidetza indartu gura dugu. Erronka modura, 120 bazkide lortzea markatu dugu. Horrek alokairuari aurre egiteko modua ekarriko digu. Bestalde, prezio sinboliko bat ipini dugu bazkide ez diren baina ekintza kulturaletara agertzen direnentzat. 3 euroko prezioa da. Diru horrek ekintzetarako materiala erosteko aukera ematen digu. Barikuro bilkura egiten dugu ekintzen balorazioa egin eta aurrera begirakoak prestatzeko.

Baten batek Besueguz bat egin gura badu, zer egin behar du?

I.G.U.: Gu zabal-zabalik gaude. Jendeari ongietorria egiteko gogotsu. Baten batek proiektuaren berri izan gura badu, datorrela lasai. Bestalde, Instagrameko @besuezornotza kontuan edo besuezornotza@gmail.com helbidean topatu daiteke proiektuari buruzko informazioa.

Elorrioko ondarea hobeto ezagutzeko eta herriaz gozatzeko aplikazio interaktiboa garatu dute

Durungaldean eta Euskal Herrian aitzindaria den teknologiak GPS bidezko ibilbide turistikoa eskaintzen du

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Elorrioko Udalak digitalizazioaren bidea urratzeko apustua egin du, Elorrioko turismo plan estrategikoaren barruan, eta horren erakusle da Elorrioko Gida Birtuala. Ninbo sormen enpresak egin du aplikazioa eta 17.666 euro ipini dituzte horretarako. Elorrioko Udalak, Eusko Jaurlaritzak eta Bizkaiko Foru Aldundiak diruz lagundu dute, Urkiola Landa Garapenaren kudeaketari eskerrak.

Turismoa, historia eta kultura indartzen dituen tresna honek esperientzia bi eskaintzen dizkio erabiltzaileari: GPSak gidaturiko ibilbide turistikoa herrian zehar eta misterio bat argitzeko jolasa. Lehenengo proposamenak Elo-



Elorrioko Gida Birtuala hainbat herritarri aurkeztu diete.

rriotik ibilbide berezi bat egitera gonbidatzen ditu bisitariak, GPSa aktibatuta eta herriko hainbat inte-

resgunetara bideratuta. Behin toki horietara helduta, eduki interaktiboak aktibatzen dira automatikoki

aplikazioan, baita gertaerak kontatzeko bideoak eta birsokuntza animatuak ere. "Ibilbidea amaitze-

rakoan, Elorrioren historia aberatsaz askoz gehiago jakingo dugu eta modu interesgarri eta dinamikoan, gainera", azaldu du Imanol Pinelo Ninboko sortzaileak.

Ibilbideaz gainera, Elorrio familian ezagutzeko jolasa ere prestatu dute. "Elorrioren historian oinarrituriko ipuin bat oinarritzat hartuta, Elorrioren murgilduko gaituen abentura bat biziko dugu, eta helburua misterio bat argitzea izango da", aurreratu du Pinedok. Jolasak "esperientzia paregabea" eskaintzen duela azpimarratu du Alazne Mendizabal turismo zinegotziak.

Bestalde, Elorrioko Gida Birtualean lehendik sortuta zeuden tresnak txertatu direla jakinarazi dute. "Eredu jasangarri batera urratsak egiteko, katalogo, mapa eta liburuxkak digitalizatu dituzte. Udalak 100.000 eurotik gora inguru inbertitzen ditu urtero turismoan, eta orain arte egindako ahalegin guztia gordeta dago aplikazioan", gaineratu du Mendizabalek.

Elorrioko EH Bilduk hautagaien zerrenda aurkeztu du, "talde konprometitua eta langilea"

Zerrenda aurkezteko ekitaldia Kontzejupean egin zuten. Julene Lazkano da zerrendaburua

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

EH Bilduk udal hauteskundeetarako hautagaiak aurkezteko ekitaldia egin zuen asteburuan, Kontzejupean. Ekitaldian, Julene Lazkano buru duen zerrenda aurkeztu zuten. EH Bilduko zerrendaburuak sare sozialetan azaldu duenez, "talde konprometitua eta langilea" da eurena.

Bestalde, asteburuko ekitaldian esker hitzak izan zituzten egungo alkatea den Idoia Buruagarentzat eta Txato Guridi eta Dani Palaciosentzat.



Elorrioko EH Bilduko hautagaiak.

Abadiñoko EH Bilduk "talde indartua" aurkeztu du udal hauteskundeetarako

Talde subiranistak lehenengo zazpi hautagaiak aurkeztu ditu. Mikel Urrutia da zerrendaburua

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Abadiñoko EH Bilduk herrigintzan dabilen partaide berriekin eta independente lez aurkeztu den kide batez talde "indartu" bat aurkeztu du. Mikel Urrutia izango da EH Bilduko alkategaia, eta "profil ezberdineko jendeagaz zerrenda sendo bat" osatu dutela jakinarazi du. "Abadiñar guztientzat gobernatu gura duen taldea gara, ez herriaren zati batentzat bakarrik", gaineratu du Urrutiak.



Abadiñoko EH Bilduren zerrendako lehenengo zazpi hautagaiak.

Udaletxera barandak eraman dituzte bidegorria itxi izana salatzen

Atxondon AHTaren aurkako mugimenduak protesta egin zuen, joan zen barikuan, bidegorria itxi izana salatzen



Udaletxera eraman zituzten bidegorria mozteko bidegorrian jarritako barandak.

ATXONDO • J.G.

AHTaren aurkako mugimenduak bidegorrian ipinita egon diren barandak udaletxeko atarian utzi zituen joan zen barikuan, protesta modura. "AHTaren aurkako mugimenduko kideok aspalditik gabilta Atxondoko Udalak AHTaren obrek herritarrei zein ingurumenari sortzen dizkien kalteen aurrean duen utzikeria salatzen", azaldu zuten prentsa oharrean.

Mugimenduko kideek azaldu zuten, AHTagaz zerikusia duten "gertakari larriak"

identifikatu zituzten. "Arrazola errekan legez kanpoko zubi bat eraikitzeaz gainera, Zubieta erreka zementu isuri handiak egin dituzte, honek suoposatzen duenagaz", esan dute. Eta bidegorriaren hasierako zatia moztu egin dutela ere salatu dute. "Baranden ekimen honeguz, ingurumenari zein herritarroei zor zaigun errespetuagaitik egoera larri honen aurrean behingoz neurriak hartu ditzan exijitzen diogu udalari", gaineratu dute AHTaren aurkako mugimenduko kideek.

Osasun gida



**Profesionalik
onenak zure
zerbitzura!**

 **Odontologia**
PSE: 26/22

viteri
HORTZ-KLINIKA
Konfiantzazko hortz klinika Durango

**DIAGNOSTIKO ZEHATZA EGITEKO ETA,
HORRELA, TRATAMENDU ERAGINKORRA
ETA SEGURUA ESKAINTZEKO BEHAR
DEN TEKNOLOGIA DAUKAGU.**

Ordutegia:
Astelehenerdik ostiralera: 10:00 - 14:00 | 16:00 - 20:00
Larunbata: hizordua hartuta

944 14 80 36 | 626 18 30 30
Askatasun etorbidea 15, 48200 Durango, Bizkaia
www.clinicadentalviteri.com

 **Optometria**
PSE: 162/13

Nai Zabala Azumendi
11587 kol. zk.

keinu

- Optimetrian teknika aintzindariak
- Kontaktologia • Haurren ikusmena
- Ikusmen terapia • Erreflexu primitiboak
- Syntonic fototerapia • SENA estimulazio neuroauditiboa • Orto-k

Arkaz 3 • 48240 Berriz • Tel.: 94 622 50 99
www.keinuoptometriazentroa.com

 **Proktologia**
PSE: 16/22

prōktós.clinic

**Uzki eta zoru-pelbikoko
patologiaren tratamendua**

Mikeldi Kalea, 13, 48200
Durango, Bizkaia
(MAM Zentroa)
674 322 360 / 747 474 699
info@proktoklinika.eus

 **Fisioterapia**
PSE: 57/16

pablo zubizarreta
fisioterapia & osteopatia

**Muruetorre, 2D
DURANGO**

pzubizarreta@gmail.com
946 550 049 - 695 784 963

 **Odontologia**
PSE: 145/13

clínica dental hortz klinika
b. unamunzaga e. etxebarria

ODONTOLOGIA OROKORRA •
INPLANTOLOGIA • KIRURGIA •
ORTODONTZIA OHIKOA (DAMON) ETA
IKUSEZINA • ODONTOPIEDIATRIA • PADI •
HORTZETAKO ESTETIKA • HORTZETAKO
ESKANERRA (ITERO ETA CBCT)

{ Muruetorre, 2C blokea, behea -
48200 Durango }
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454
uecdental@gmail.com

 **Podologia**
PSE: 214/06

Abinara Urreta Jainaga

**OINETAKO PATOLOGIAK
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ**

Herriko gudarien kalea, 10 behea
DURANGO - Tel./Faxa: 946 215 404

 **Fisioterapia**
PSE: 119/13

Zainduz
**FISIOTERAPIA
OSTEOPATIA**
Ane Legorburu Munitxa

Pilateseko klaseak eskaitzen ditugu.
Saio pertsonalizatuak dira,
talde txikietan.

Trañabarren 13, 4. blokea
behea eskuma MATIENA-ABADIÑO

944 657 132 - 686 906 374

PSE: 119 -13

Otxandion amaitzear dira Bolaleku osteko erreka ertzaren naturalizazio eta egonkortze lanak

Higatuta zegoen hormigoizko euste-horma desmuntatu eta erreka ertzearaino heltzen den bidexka egin dute, besteak beste



Errekaraino jaisten den bidexka berria.

OTXANDIO • JOSEBA DERTEANO

Otxandioko Udala, URA agentziagaz batera, Bolaleku osteko ibai ertza naturalizatzen eta egonkortzen dabil. Urteak joan ahala, erreka ondoan zegoen

euste-horma higatzen joan da apurka-apurka azpiko aldetik, erreka emariaren ondorioz. Horren ondorioetariko bat da han ondoan dagoen belargunea hondoratzen joan dela apurka.

Ondorioz, zonalde hori hesituta eta herritarrentzat itxita egon da.

Orain, URA agentziagaz adosturiko proiektuagaz, gune hori berreskuratuko dute hainbat

lan eginda. Lehenengo, hormigoizko euste-horma desmuntatu dute, errekaraino. Hor zeuden pinuak ere erretiratu dituzte. Ondoren, ingurua egonkortzen eta berreskuratzen hasi dira. Batetik, errekaraino bertaraino heltzen den bidexka berri bat egin dute. Bidexkaren hasierako

Lanak amaitzeko, ibai ertzetan ohikoak diren zuhaitzak landatuko dituzte eremu hartan

zatia hareazkoa da, eta azken zatian maila batzuk egiten dituzte harlauzeekin eta egurragaz ur ertzearaino, errekaraino joan gura dutenek horretarako aukera izan dezaten.

Bestalde, erreka ondoan sare bat ipini dute lurrari eusteko. Lanak amaitzeko, ibai ertzetan ohikoak diren zuhaitzak landatuko dituzte eremu hartan.

Mallabian makarroiak jaso dituzte 'Zaporeak' Gobernu Kanpoko Erakundearentzat

MALLABIA • J.D.

Zaporeak Gobernu Kanpoko Erakunde Lesboseko (Grezia) esparruetan dauden errefuxiatuentzat elikagai bilketa egiten dabil hainbat herritan. Horien artean, Mallabian. Herri bakoitzean elikagai desberdinak batzen dituzte. Mallabian

Hodi-makarroiak batzen dabilta. Gaur da horretarako azkeneko eguna

hodi erako makarroiak batzen dabilta. Bilketa astelehenean hasi zuten eta gaur amaituko da. Honako hauek dira bilketa guneak: eskola, liburategia eta udaletxea. Ondoren, zapatu honetan, Tuper Solidarioa egingo dute Ermuan. Ekitaldi honetan, arroza lumagorriagaz, dilistak bakailaoagaz eta fruta pieza bat dituen tuper bat erosi ahal izango da, bost euroren truke.

Otxandioko EH Bilduk maiatzeko hauteskunde zerrenda aurkeztu du

Gaur egungo alkatea da alkategaia: Egoitz Garmendia

OTXANDIO • J.D.

Otxandioko EH Bilduren oinarriak aho batez onartu du udal hauteskundeetarako hautagaitza herri batzarrean. Egoitz Garmendiak alkategai lez errepikatuko du. Aurkeztu duten lantaldeak "azken legegintzaldian esperientzia duten kideak, eta nagusien zaintzan, gazterian, trantsizio energetikoan eta kirolean adituak diren pertsona berriak uz-

tartzen ditu", azaldu dutenez. "Hurbiltasuna eta herriagazko dedikazio osoa izango dira egunero oinarriak", gehitu dute. Hauek dira zerrendako izenak, ordenan: Egoitz Garmendia, Montse Morote, Josu Abaunza, Inge Landaluze, Mikel Abasolo, Maider Arejolaleiba, Ibon Garate, Oihane Sanchez eta Joseba Gastelu. Ordezkoak Mirian Uribe, Aritz Otxandiano eta Isa Lazaro dira.

Jokin Lozares Abasolo izango da EAJko alkategaia Otxandion hauteskundeetan



OTXANDIO • J.D.

EAJk iragarri du Jokin Lozares Abasolo (Otxandio, 1978) izango dela jeltzaleen alkategaia hauteskundeetan. Ingeniari-tzan doktore da eta gaur egun irakaslea eta ikerlea da Deustuko Unibertsitatean. Izendape-na "ilusioz beterik" hartu du. "Otxandio aurrera atera gura dut, horixe da pauso hau ematera bultzatu nauena", adierazi du. Zerbitzu sozialak "sendotzea", garraio publikoa "hobetzea" eta erkidego energetikoari "bultzada" bat ematea ditu lanildoetari-ko hiru. Bere taldeari buruz dio "emakume eta gizonen lantalde anitza" dela, bai adinari eta bai lanbideei dagokienez.

Izurtzako jaiak antolatzen hasteko batzarra egingo dute datorren astean

IZURTZA • J.D.

Izurtzako Udalak batzarrera deitu du iraileko jaiak antolatzen hasteko. Lehenengo batzarra datorren asteko eguaztenean egingo dute, 18:30ean, udaletxeko areto nagusian, eta bertaratzeko deia egin diete herritarrei. Izan ere, Izurtzan ez dago jai batzorderik, eta udaleko kultur batzordearen bitartez

Eguazten arratsaldean udaletxean izango den batzarrean parte hartzera deitu dituzte herritarrak

antolatzen dira jaiak. Hala ere, jaien antolaketan parte hartu edo jaietara buruzko ekarpen edo iruzkinen bat egin gura dutentzat zabalik izaten dute atea. Datorren astekoa hurrengo hileetan egongo diren batzar sorta bateko lehenengoa izango da. Iazko jaietan nobedadea izan eta arrakasta izan zuen ekimenetariko bat GertuFest jaialdia izan zen.

Urban dantza ikastaroan parte hartzeko izen-ematea hasi dute Mañarian

MAÑARIA • J.D.

Mañarian, urban dantza ikastaroa ipini dute martxan udalak eta Ganso eta Cia konpainiak elkarlanean. Doako ikastaroa da eta egun hauetan egingo dute: apirilaren 21ean eta 28an, eta maiatzaren 5ean eta 12an. Denetan 17:30etik 19:00etara. Ikastaro honetan parte hartu

Doako ikastaroa da eta udaletxean eta liburategian egin daiteke izen-ematea

ahal izateko izen-ematea martxan da jadanik: udaletxean eta liburategian egin daiteke. Interesa dutenek kultura@manaria.eus helbide elektronikora ere idatzi dezakete. Jammers taldeak emango du ikastaroa. Maiatzaren 13an, Kultur Astearren barruan, arte eszenikoen erakustaldi bat egongo da, eta, amaieran, beste erakustaldi bat ere egin gura dute.



Otxandioko EH Bilduren hauteskunde zerrenda osatzen duten hautagaiak.



Athletic Club



Vs



Getafe CF

Apirilak 1 | 16:15etan



Athletic Club




Vs



CA Osasuna

Apirilak 4 | 21:00etan

Ligako eta Kopako partida guztietarako sarrerak San Mames VIP Area-ko palkoan



Atheticek San Mamesen jokatu dituen Ligako eta Kopako partida guztietako sarrera bikoitz bana (palkokoa) zozkatuko du ANBOTOK.

Oraindik Anbotokide ez bazara, ez galdu zozketa hauetan eta ANBOTOK egiten dituen gainerakoetan parte hartzeko aukera eta egin zaitez Anbotokide!

Zozketan parte hartzeko azken eguna: martxoaren 26a.

Okm:
*batzen gaituen
distantzia*

Egin zaitez Anbotokide
eta parte hartu gure
zozketetan! >



**anboto
kide**

anboto
kide

Anbotokideen txokoa

MARTXOKO ZOZKETAK



Hondamendia antzerkirako bi sarrera. Apirilak 1ean, San Agustinen.



Uxarte sagardotegian bi pertsonentzako jatordua.

*Zozketa hauetan parte hartzeko eman izena gure webgunean.

IRABAZLEAK

BBK Karpin Fauna: Goretti Alonso Armendia eta Urko Zabaleta Azarloza

Ez naiz inoiz Dublinen egon: Amaia Legarra Iturriaga

Loraldia Terminala: Sormen berriaren harrobia: Carlos Fernandez Moreno eta Bittor Amezua Olalde

Alderray: Naia Alzola Amezua eta Idurre Garcia Urberuaga

Tetuan: Iraide Azpitarte Ugartemendia eta Amalur Macho Olivares

Popperra, Aferra, Utopia: Leire Telleche Kortabarria

Xiberu: Gotzone Bilbao Mezo

Garaiko sagardo egunerako 3 edalontzi: Consuelo Goimil Peluffo eta Asier Rementeria Milikua

Okm:
batzen gaituen
distantzia

Egin zaituz Anbotokide
eta parte hartu gure
zozketetan!



Jon Berasaluzek eta Ander Zorrakinek ortugintza ekologikotik bizitzeko proiektua hasi dute

Durangaldea Haztegia proiektuaren barruan ortugintza ekologikoan jarduteko aukera izango dute Eituan

BERRIZ • EKAITZ HERRERA

Berrizko lursail batean hiru urteko proiektua garatuko dute, ortugintza ekologikotik bizitzeko bideak ikertu eta barazkiak merkaturatzeko. Proiektuak Durangaldea Haztegia du izena eta Urkiola Landa Garapena du bultzatzaile. Erronka argi bat dago guztiaren atzean: gazteria lehen sektorean lan egitera bultzatzea. Egitasmoan esku hartzen duten babesleak Foru Aldundia eta Durangaldeko Udalak dira. Astelehenean egin zuten proiektuaren aurkezpenean, ekimenean jardungo duten gazte bik

parte hartu zuten. Jon Berasaluze durangarrak 25 urte ditu. Ander Zorrakin elorriarrak 23. Baserri kooperatibetan lan egindakoa da Berasaluze, eta basozaintzari eta landa-eremuari loturiko ikasketak ditu. Zorrakin Ingurumen Zientzietako unibertsitate gradua amaitzen dabil eta ortugintza arloan egin ditu praktikak. Orain, ikasitakoak lan esparrura eramango dituzte, ortugintza ekologikoan trebatu eta lan horretatik bizitzeko enpresa-proiektu bat garatuta. Ortugintzak duen "praktikotasunak" eraman du Ander

Zorrakin proiektua hastera. "Lan honek duen praktikotasunak eta lehen sektoreak behar duen bultzadak eraman ninduten proiektu honetan izena ematera. Kanpoko herrialdeetan ekoizten diren produktuen dependentzia handia dugu. Horrek kalteak dakartza ingurumenean. Asko maite ditut natura eta ingurumena, eta proiektu honek aukera bat eskaintzen dit nire bizitza kalterik eragin barik aurrera ateratzeko", azaldu du eguerdi honetan.

Jon Berasaluzek antzeko iritzia du: "Durangaldea eragozpen ugari dago lehen sektoretik bizitzeko. Proiektu honen berri izan nuen, egundoko egitasmoa zela ikusi nuen. Horrelako gehiago behar dugu lehen sektoreak aurrera egin dezan. Gazteriak belaunaldi erreleboa ekarri behar du, eta proiektu honek horretan laguntzen duela iruditzen zait".



Jon Berasaluze eta Ander Zorrakin.

'Ainarak' dokumentalagaz hasiko dituzte Zaldibarko Mendi Jardunaldiak

Apirilaren 3an eta 17an Bilbo Mendi Film Festival jaialdiko ikus-entzunezkoak proiektatuko dituzte. Bestalde, azaroaren 9an Pou anaiak Zaldibarren izango dira 'Aupa Pou' dokumentalagaz

ZALDIBAR • J.G.

Azarora bitartean, Zaldibarko VII. Mendi Jardunaldiak egingo dituzte. Martxoaren 30ean ipiniko dute martxan egitaraua, 18:30ean, *Ainarak* dokumentalagaz. Apirilaren 3an eta 17an Bilbo Mendi Film Festival jaialdiko ikus-entzunezkoarik onenak proiektatuko dituzte: apirilaren 3an *Iretargi*; *Tofol Castanyer*, *El Corredor Infinit* eta *De l'ombre à la Lumière*. Eta apirilaren 17an *Agur Artzai*, *Ephemeral* eta *This is Beth*. Apirilaren 20an, Idoia Rubialek eta Maite Zumarragak *Egunon Capitan* dokumentala aurkeztuko dute. Azaroaren 9an, Pou anaiak *Aupa Pou*: *Bizitzari sokaz lotuta* proiektatuko dute.



'Ainarak' dokumentala.

Bilboko Koralak Valentin Zubiaurreren 'Pasioa' interpretatuko du Garain

GARAI • EKAITZ HERRERA

Atzerritik jaiotzeko gozotasuna bueltatzen den bidaiariaren antzera, Elizabarriko hormak Valentin Zubiaurre artista garaitarraren doinuekin beteko dira apirilaren 1ean. Musika emanaldi berezia izango da, balio sinboliko handikoa, Elizabarritik metro gutxira baitago Ramon, Valentin eta Pilar Zubiaurre artisten etxea.

Bilboko Koral Elkarteak Valentin Zubiaurreren konposizio bat berreskuratu du oraintsu, artistak

orain 150 urte Erroman idatzirikoa *Pasioa*. Koralak partitura berreskuratu, manuskritoa argitaratu eta musika interpretazioa grabatu du. Eta lana jendaurrean aurkezteko kontzertu bira hasi du orain dela gutxi. Martxoaren 10etik 12ra bitartean, Erroman eman zuten *Pasioa*. Hilaren 25ean Madrilgo Errege Kaperan emango dute, eta Bilboko Gizakundearen elizan martxoaren 31n egongo da entzungai. Birako azken kontzertua Garain emango dute, apirilaren

1ean, artistaren jaioterriko epelean. Bilboko Koralak emanaldi bikoitza egingo du. Lehenengo saioa 18:30ean izango da, eta bigarrena 20:30ean. Emanaldirako sarrerak agortuta daude. 140 bat txartel ipini dituzte salgai; 70 emanaldi bakoitzeko.

Bilboko Koral Elkarteak ki-deek, Garaiko Udaleko agintariek eta Foru Aldundiko ordezkariak kontzertuaren nondik norakoak argitu zituzten joan zen barikuan. "Valentin Zubiaurrek Erroman idatzi zuen *Pasioa*, une hartan Espainiako Akademiako bekaduna zela. Konposizioa Aste Santuko otoitz lez egin dago, latinez idatzita eta San Mateoren ebanjelioko berbak oinarri hartuta", azaldu zuen koraleko kudeatzaile Iñigo Alberdik. Garaiko alkateak kontzertua Garain antolatzearen garrantzia nabarmendu du: "Ekitaldi hau Garain antolatzea, kontzertu bira hemen antolatzea oso berezia da. Honako hau auzolanaren emaitza da. Herrikide baten obraren balioa azpimarratzen dugu horrela".



Instituzioetako ordezkariak Miren Pilar Gutiérrez de Zubiaurregaz, aurkezpenean.



Zortzi artisau garagardo eskainiko dituzte, Askondon ipinitako barran.

Artisau garagardo jaia egingo dute lurretan, apirilaren 1ean

Lau garagardogile batuko ditu seigarren aldia duen azokak

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Euskal Herrian ekoizturiko artisau garagardoa probatzeko aukera egongo da lurretan, apirilaren 1ean. VI. Beer Azoka egingo dute eta Garai Agro Brewery (Garai), Baobeer (Elgeta), Atala (Burlata) eta Txapel (Izaba) garagardogileek egindako zortzi artisau garagardo eskainiko dituzte, Askondon ipinitako barran. Antolatzaileek egun osoko egitaraua osatu dute.

Umeentzat ponpa tailerra eta txapa lasterketa egongo dira, 12:30ean, eta, 17:00etan, IV. IBA igel txapelketari ekingo diote. Horrez gainera, garagardo sorta zotz egingo dute, 15:30ean eta 23:30ean. Egun osoan zabalik egongo da sukaldea (Ibon Petralanda); eta etengabeko binilo pintxadak berotuko du giroa: Quitapenas Colectiva, KSKA eta Pantx arituko dira.

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA, KOOR. E.

Goi Mailako Heziketa Zikloak

- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Sistema Elektrotekniko **Berria!** eta Automatizatuak
- Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa
- Mekatronika Industriala
- Automatizazio eta Robotika Industriala

Espezializazio ikastaroa

- Industria Mantentzearen Digitalizazioa **Berria!**


#LanerakoGertu



ATE IREKIAK

Apirilak 1 11:00etan

Maiatzak 6 11:00etan



Eman izena!

664298683
664298704



mondragon.edu/lanbideheziketa

Gazte Topagunean Durangaldeko dozenaka sortzaile eta hizlari arituko dira

Ernaik Elorrion egingo du Gazte Topagunea, apirilaren 6tik 9ra. Eskualdeko hainbat kidek parte hartuko dute

DURANGALDEA • J.G.

"2023ko Gazte Topagunea Euskal Herri osoko gazteentzat ekimen esanguratsua izatea gura badugu, zeresanik ez Durangaldeko gazte eta herritar guztiontzat. Hori posible egiteko, Durangaldeko dozenaka sortzaile eta hizlari izango ditugu", azaldu dute Gazte Topaguneko antolatzaileek. Muzika taldeei dagokienez, Duran-

galdeko hauek taularatuko dira: Mockers, Dube, Peio eta Itsua, Zeker, Gora Etorri, Xaukena Xauk, Pinpilinpussies eta Joseba Sarriolandia, Ines Osinagagaz batera. Solasaldietan hizlari hauek egongo dira: Onintze Oleaga, Atxondo Harrera Elkartea, Jabier Lertxundi, Julen Arzuaga, Andoni Olariaga, Martin Arbeo eta Maialen Arteaga.



Durangaldeko dozenaka kidek parte hartuko dute Gazte Topagunean.

Politikan

Jesica Ruiz
Perez
PSE-EE



Denok gara durangarrak

Ostiral honetan estreinatuko da durangar ezberdinek duela hamarkada batzuk (50-70eko hamarkadetan) Espainiako beste erkidego batzuetatik etorri izanaren historia azaltzen duen dokumentala. Andaluziarrek, extremadurarrak eta Gaztela eta Leongoek euren bizipenak kontatuko dizkigute.

Orokorrean, batez ere premiagatik etortzen ziren, beren familiak aurrera atera ahal izateko lan baten bila. Haie-tako batzuk gerraostetik ere ihes egiten ari ziren, ezkerrekoak izatea zaila zen diktadura batetik, hain zuzen.

Bai, Andaluzia eta Extremadura utzi eta Euskadira etorri ziren aitona-amona horien biloba naiz, eta oso harro nago horretaz. Beharrak ekarritakoak, sustraiak hemen bota dituztenak, baina jatorrizko lurraldea ahaztu gabe dutenak. Egia da, gehienetan trenak ekarri zituela, baina batez ere beharrak, miseriak, beldurrak, lan egiteko gogoak edo familia aurrera ateratzeko gogoak ekarri zituen. Ezin dugu ahaztu, horiei guztiei esker, euren eskulanari esker, Euskadi industria motorra izan zela.

Gure aitona-amonek eta gurasoek erakutsi digute Durango maitatzen, durangarrak izaten, kultur aniztasunaren parte izaten... nahiz eta oraindik askotan, jendea "euskaldun ziurtagiria" emateko ahalmena dutela uste dutenek gu kanpoan utzi nahi gaituzten.

Zoritxarrez, oraindik, norberaren lurra atzean uzteko beharra (kasu askotan bizia jokoan egonda ere), eta estigmatizazioa gaur egungo gaiak dira.

Durangaldea asteen

Garaitarrek V. Sagardo Eguna ospatuko dute bihar, eta DJ Bullek giroa alaituko du

GARAI | Martxoaren 25ean V. Sagardo Eguna egingo dute Garain, 18:30etan hasita. Aurten, nobedade legez, plazan izango da, eguraldi ona egiten badu, eta euria eginez gero frontoira lekualdatuko dute. Aurreko edizioetan lez, edalontzia bost euro ordainduta gura beste jan eta edan ahal izango da. Giroa alaitzeko, DJ Bullek musika ipiniko du.

Zornotzak Euskal Herriko Mus Txapelketaren finala hartuko du bihar, martxoak 25

ZORNOTZA | Euskal Herriko Mus Txapelketako azken lehia Zornotzan jokatu da, Zubiondo parkean, martxoaren 25ean. Txapelketan zazpi euskal lurraldeetako bikoteak egon dira. Zapatuko finala irabazten duen bikoteak txapela, garaikurra, 3.000 euro eta nazioarterako bidai irabaziko ditu.

'Txise Ganien' bakarriketa saioa egingo dute martxoaren 26an Abadiñon, Mendiolan

ABADIÑO | Abadiñoko Mendiola auzoko Errekatxo elkarteak bakarriketa saioa antolatu du domeka honetarako, martxoak 26. 'Txise Ganien' bakarriketan Markel Sanchez Torrai eta Joana Ocaña Nona arituko dira. Saioa 19:00etan hasiko da, baina 18:00etatik elkarteko barra zabalik egongo da. Jatekoa ere egongo da.



Durangoko Fumbarri enpresan kaleraturiko langilea "berriro hartzeko" eskatu du CCOO-k

DURANGO | Iazko abenduan, Durangoko Fumbarri enpresako mantentze-lanen saileko langile bat kaleratu zuten eta CCOOren ustez erabaki hori "neurritz kanpoko" izan da. Ondorioz, langilea "berriro hartzeko" exijitu zuten joan zen barikuan egindako elkarretaraztean. Enpresako mantentze-lanen sailean "deslokalizazio" prozesu bat gertatzen ari dela eta "azpikontrataturiko geroago eta langile gehiago" dagoela ere salatu zuten enpresako sail sindikaleko Bideguren eta Langile Bartzordeko kidea den Antonio Montillak.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak: Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

Eman ezazu zure iritzia eta lagundu iezaguzu Anboto hobetzen.

Bete inkesta
hemen



 anboto



TANGRAMA

Moztu itzazu alboko pieza guztiak eta kokatu behean dagoen lauki grisean.
Bazara gai hutsunerik utzi barik dena betetzeko?













ITZALAK

Zein itzal dagokio beheko
pailazoaren irudiari?








LOTU ITZAZU

Lotu arraina arrainontziagaz.



TXIKITIK HANDIRA





'Ez naiz inoiz Dublinen egon'

ANTZERKIA **ELORRIO :: Martxoak 24**

Bizipen eta sinismenen onarpenari buruzko komedia garratza

Ez naiz inoiz Dublinen egon besteen bizipen eta sinismenen onarpenari buruzko komedia garratza da. Bakoitzak gure errealitate propioa eraikitzen dugu, baina noraino gara gai besteenak onartzeko? Tentazioa antzerki konpainiak galdera hori planteatzen du gaur Elorrioren taularatuko duen antzezlanean.

Amesti familia Eguberri gaua ospatzeko batu da, baina aurten goa berezia da. Elena, hiru urtean

ikusitako ez duten alaba, Londresetik bueltatu da azkenean. Baina ez dator bakarrik. Cindy gaz dator, bere neska-lagun irlandarragaz. Denak desiratzen daude irlandarra ezagutzeko, baina inork ez du espero Cindy pertsonaia ikusezin bat izatea, familiaren oreka hankaz gora ipiniko duen Elenaren fantasia bat. Atetik sartzen den momentuan, pertsona bitxi hau onartu ala ez erabaki beharko du. Arriola antzokian, 20:00etan.

Martxoaren 24an

DURANGO dokumentala

'Trenak ekarritakoak' (Zuz: Txelu Angoitia), 19:00etan. Xabier Aierdiren berbaldia.

DURANGO kontzertua

Jürgen Essl organista, 20:15ean, Andra Mari elizan.

ZORNOTZA antzerkia

'Alderray' (Tartean), 20:00etan, Zornotza Aretoa.

ZORNOTZA bertsoak

Durungaldea Uztabarritzen III. Bertso Zirkuitua: A. Aldazabal, A. Sarriugarte, I. Elortza eta A. Martin, 19:00etan, Zelaieta zentroan. Gai jartzailea: J. A. Urkiaga.

Martxoaren 25ean

ABADIÑO antzerkia

'Una boda insospechada' (Teatro Coles), 19:00etan, Errota kultur etxean.

BERRIZ ipuin kontalaria

'Zer gertatzen da basoan?' (Maidar Alcelay), 12:15ean, Kultur Etxean.

BERRIZ antzerkia

'Corazones, meteoritos y una enfermedad rara' (Azar Teatro), 19:00etan, Kultur Etxean.

GARAI jaia

V. Sagardo Eguna, 18:30ean.

Martxoaren 25ean eta 26an

BERRIZ tailerra

'Autodefentsa feminista' (Esther Lopez-Safo eskola), Gaztetxean (10:30-14:30).

Martxoaren 26an

ABADIÑO bakarriketa

'Txise gainean' (Torrai eta Nona), 19:00etan, Mendiolan.

IURRETA ate irekiak

Ortu komunitarioaren ate irekien saioa, 11:00etan, Garaizar auzoan.

Martxoaren 27an

DURANGO proiektzioa

Film laburrak, 19:00etan, Elkartegian. Siria iparraldean jasandako bonbardaketen kronikak (Suargi).

Martxoaren 27tik apirilaren 2ra

DURANGO erakusketa

'Martxoak 31: Durango, atzo eta gaur', bonbardaketek kalteturiko guneetan.

Martxoaren 28an

DURANGO aurkezpena

'Luminoso idolo oscuro' liburua (Luis Valdés eta Isabel Arenal), 18:30ean, Arte eta Historia Museoa.

ELORRIO berbaldia

'Emakumea, gerra eta errepresioa kartzelan. Orue txaleta' (Monika Calvo Ortiz), 19:00etan, Iturri kultur etxean (Laumunarieta).

Martxoaren 30ean

DURANGO ekitaldia

Bonbardaketen ondorioz hobi komunetan lurperaturikoak omentzeko oroigarriaren inaugurazioa, 18:00etan, hilerrian.

ELORRIO berbaldia

'Julian Ariño, enpresari, haginlari eta alkate exiliatua' (Iban Gorriti eta Igor Basterretxea), 19:00etan, Iturri (Laumunarieta).

Martxoaren 31n

DURANGO ekitaldia

Lehenengo aire eraso gogoratzeko alarma hotsa, 08:30ean, Andra Mariko kanpandorrean.

Biktimen omenezko sua,

08:30ean, Andra Mariko elizpean.

Bigarren aire eraso

gogoratzeko alarma hotsa, 18:45ean.

Bonbardaketan hildakoei

oroimen ekitaldia eta lore-

eskaintza, 19:30ean, Andra

Mariko elizpean (Gerediaga eta

Kraskitina).

ELORRIO bertsoak

Durungaldea Uztabarritzen

III. Bertso Zirkuitua:

A. Bizkarra, A. Katarain, P.

Salterain eta M. Artetxe,

20:00etan, Gaztetxean. Gai

jartzailea: A. Urien.

ELORRIO ekitaldia

Memoria ibilbidearen

inaugurazioa, 19:00etan,

Zalduntzi plazan (Laumunarieta).

IURRETA ipuinak

'Baziren behin neska

abenturazaleak eta mutil

ameslariak' (Bea Egizabal),

17:00etan, bibliotekan (3-5

urte). Sei urtetik gorakoentzat,

17:45ean.

'80 amandre' (Dorleta

Kortazar), 19:00etan.

Helduentzat.

OTXANDIO murala

Herri murala, 17:30ean.

Zinema

:: Berriz KULTUR ETXEAN

• King. Mi pequeño rey

barikua 24: 17:00

domeka 26: 17:00

• Petit Pays

eguztana 29: 18:30

:: Durango ZUGAZA ZINEMA

• John Wick 4

barikua 24: 19:30

zapatua 25: 19:30

domeka 26: 18:45

astelehena 27: 19:00

martitena 28: 19:00

eguztana 29: 19:00

• 65

barikua 24: 18:30 / 21:00

zapatua 25: 16:45 / 18:45 / 21:00

domeka 26: 17:30 / 19:30

astelehena 27: 18:00 / 20:15

martitena 28: 18:00 / 20:15

eguztana 29: 19:00

• El hotel de los líos

barikua 24: 18:30 / 21:00

zapatua 25: 17:30 / 18:45 / 21:00

domeka 26: 16:45 / 19:30

astelehena 27: 18:00 / 20:15

martitena 28: 18:00 / 20:15

eguztana 29: 19:00

• Lau ahizpa magikoak

zapatua 25: 16:45

domeka 26: 17:30

:: Elorrio ARRIOLA ANTZOKIA

• Ellas hablan

zapatua 25: 20:00

domeka 26: 20:00

astelehena 27: 20:00

• Mi querido monstruo

zapatua 26: 17:00

:: Zornotza ZORNOTZA ARETOA

• Los Fabelman

zapatua 25: 20:00

domeka 26: 20:00

astelehena 27: 20:15

• Violeta, el hada traviesa

zapatua 25: 17:00

domeka 26: 17:00

• Otto Barbarul (JBGA)

eguztana 30: 20:00

Durungaldeko berbalagunen XIV. Kultur Lehiaketa

1. Aurten Durangon sortu den Berbalagun taldeetako bat da:

- a) Irakurzale Kluba
- b) Hitanoa mendian
- c) Igerilagun

2. Plateruenaren lelo berria:

- a) Piztu argiak!
- b) Plateruena, Kultur Aterpe
- c) Piztu, poztu, puztu

3. Hauetako zein ez da idazlea?

- a) Itxaro Borda
- b) Kristina Mardaras
- c) Lourdes Unzueta

4. Zein ez da musika talde baten izena?

- a) Haatik
- b) Baske Street Boys
- c) Eztanda

5. Amaitu atsotitz hau: *Umearen zentzuna,*

- a) etxean entzuna
- b) beti da tuntuna
- c) berak nahi duna

6. Amaitu atsotitz hau: *Ezkur urte,*

- a) elur urte
- b) zerriak oparo
- c) saskia bete

7. Amaitu atsotitz hau: *Otsoa aipatu*

- a) eta ardirik ez
- b) eta otsoa atean
- c) eta ilargia behatu

8. Zein da 2023ko Hitzez eta Ahotsez ekimenean landuko den gaia?

- a) Umorea
- b) Bakardadea
- c) Begirada

9. Zein zen Ebaristo Bustinza Lasuen idazle eta kazetariaren goitizena?

- a) Bustin
- b) Kirikiño
- c) Berakatz

10. Ines Osinagaren bakarkako lehen lanaren izena:

- a) Itsasoa da bide bakarra
- b) Oraindik Gose
- c) Osinaga"

11. Nevadah taldearen disko berriaren izena:

- a) Still Goes On
- b) Pendulum
- c) Transformer

12. Iurretako Abadetxean egiten den Laixiar irratiko saio bat da::

- a) Ikusi Makusi
- b) Abadetxeko k@ntuak
- c) Laixiarren alabak

13. Irati filmean agertzen dira:

- a) Eneko Sagardoy, Itziar Ituño eta Kepa Errasti
- b) Edurne Azkarate, Itziar Ituño eta Elena Uriz
- c) Ramon Agirre, Eneko Sagardoy eta Nagore Aranburu

14. Zer da Ezta Ilen?

- a) Zaldibarko musika talde bat
- b) Erronkarin ospatzen den poesia jaialdia
- c) Mamoiitiko San Juan baselizan dagoen idatzia

15. Berbalagun izatearen abantailak bat da:

- a) Euskarazko emanaldietan deskontuak eskuratzea, Arriola eta San Agustin antzokietan
- b) Kafesnea prezio erdian, edozein ostatutan
- c) Hiru kreditu EHuko ikasketetan

IZEN-ABIZENAK:

HERRIA:

TELEFONOA:



SARIA: 6 kultur saski

Erantzun zuzenak markatu eta entregatu Durungaldeko edozein euskaltegitan, apirilaren 15a baino lehen.

Euskaraz praktikatu nahi?

Hainbat aukera ditugu zuretzat:



MINTZA TALDEAK



MENDI LAGUN



FAMILIA EKINTZAK



IRAKURZALE KLUBA



MINTZO DROMOAK

EMAN IZENA

Berba lagun 639 400 786

praktikatu.eus/blog/durungaldea
durungaldea@aeek.eus



“Nirekin akordatu badira kariñoz ibili direla iruditzen zait eta horrek poza ematen dit”

Xabier Amurizak Monzon-Ganuzak saria jaso zuen joan zen astean Bergarako Seminarixoa, bere ibilbidea aitortzeko



daukadan adinean pozak behar ditut. "Harro?", galdetzen didate. Niri harrotasunak orain ez dit ezer ematen, niri pozak ematen dit, eta hau poz handia da, eta luzea.

Zer izan ziren zuretzat Telesforo Monzon eta Josefa Ganuzak?

Telesforo eta Josefa apaiza nintzela ezagutu nituen. Derion Bizkaiko apaiz talde batek, *Gogor* izenekoak, itxialdi luze bat egin genuen 68an, eta gero *Gogor* izeneko disko bat atera genuen. Disko klandestinoak zen, noski, eta hori iparraldera eramane behar zen, Telesfororen eta Josefaren etxera. Jose Antonio Retolaza eta biok joan ginen. Apaiza hura ere. Mini Morris txiki batean joan ginen, Klaudio Gallastegi izeneko Bilboko San Antongo parrokoagaz. Gallastegik 140 kilo zeukan eta hura eramane genuen koltxoi bezala. Gizon ikaragarria sotana eta guzti, trumoiaren bezalakoa zeukan ahotsa. Pasatu ginen eta mugara iritsi ginenean esan genion: "Klaudio, hauxe da zure ordua". Beste aldean, gendarmeek alto egin ziguten. Pentsatu Mr. Beenen kotxearen bezalakoa, atera ezinik, gendarmek begira. Halako batean, gizon puska hori zutitu zen sotana eta guzti, eta hitz hauek esan zituen: "Y ahora quién se hace responsable de reintroducirme en esta caja de cerillas?". Gendarmek harrিতuta geratu ziren, eta aurrera jarraitzeko esan ziguten. Telesforo arduratu zen disko klandestino hori kaleratzeaz. Bere momentuan sona handia izan zuen eta gaur egun ere batzuek kontserbatzen dute disko hori.

Sari honek utopiarekin lotzen den izena dauka. Monzonen esaldi batetik dator hori. Oradore handia zen eta *utopikoak* erabili zuten. Izen hori asko gustatzen zait. Literaturan eta abar utopia maite izan dut eta maite dut. Azken batean, literatura bera ere utopia bat da. **Ibilbide oso bati emandako saria da. Pozik zaude zure ibilbidearen inguruan nabarmentzen diren parteekin?** Nik neure bizitzaz idatzi ere asko idatzi dut. Ez neure bizitza kontatzeagatik, baizik eta neure garaia, neure aroa, neure historia eta Euskal Herriaren historia kontatzeagatik. Ulertzen dut neure bizitzaren laburpena egiterakoan, beste edozeinekin gertatzen den bezala, pasarte batzuk aukeratu egin behar direla. Nor-

malean pasarte garrantzitsuak aukeratzen dira. Sari banaketan ere atera ziren eta nire oroimenean ez dago baloraziorik. Denak dira nireak. Nire oroitzapen nagusiak haurtzaroan daude, baina ni ez naute omenduko nire haurtzaroagatik. Nire oroimenean eta sentimendu guztien oinarrian haurtzaroa dago. Gogoratzen didaten edozer gogoratzen didatela ni haurtzarora eta nera-bezarora noa.

Apaiz garaiko urteak indartsuenak izan zirela esan izan duzu. Gaur egun oraindik ere errebelde?

Errebeldia intelektuala, lehen baino gehiago. Kemena behar bada gutxiago. Euskal Herriak, eta munduak oro har, ez dute motiborik ematen errebeldia hori jais-teko. Gertatzen dena da laster 82 urte egingo ditudala. Baina ni oso kobardea eta beldurtia izan naiz, agian beste irudi bat eman dudan

“Ez nago gizarteko zurrumbilo horretan. Orain, jubilatuen elkarretaratzeetan eta horrelakoetan egoten naiz”

SARIA • GOIENA

Xabier Amuriza Sarrionandiak (Zornotza, 1941) aurtengo Monzon-Ganuzak saria jaso du. Bergarako Udalak eta Olaso Dorrea fundazioak emandako saria da eta Euskal Herriari, kulturari, hizkuntzari, historiari eta etorkizunari bizitza osoko lana eskaini dioten herritarrak omentzea du helburu. Joan zen egunean jaso zuen saria, Bergarako Seminarixoa aretoan. Hona hemen Goienak Amurizari egindako elkarrizketa.

Zer da zuretzat aitortza hau?

Poza, poz handia. Daukan izenagatik, Monzon-Ganuzak. Bizitza politikoa, sozialean eta pertsonalean zerbait baino gehiago izan dira. Bergaragatik ere bai. Bergaran historia luzea eta erreferentzia handiak daukat, batez ere bertsolaritzan hasi nintzenean. Bergarako pilotalekuan betekadak izaten ziren, eta nik hori beti daukat gogoan. Sari bat da, ezustean etorria. Ni ez naiz borrokatu ezertan, ez naiz lehiatu ezertan eta bat-batean sari honek halako barne olatu baten moduko poza ematen dit. Urteetara baditut lagunak nire izena ahotan erabili dutenak. Nirekin akordatu badira kariñoz ibili direla iruditzen zait eta horrek poza ematen dit. Joan zen astean bildu zen jendeak hori erakutsi zidan eta nik orain

arren. Hala ere, indar batek aurrera jarraitzeko indarra eman dit. Orain beste aro batean nago. Egia esan, orain planeta honek ez dit askorik ardura.

Zelan ikusten duzu gaur egungo gizartea?

Gizartea gaur egun ez dut gehiegi ikusten. Ez nago gizarteko zurrumbilo horretan lehen ibiltzen nintzen moduan. Orain, jubilatuen elkarretaratzeetan eta horrelako tokietan egoten naiz. Halako ezaxola puntu batekin jarraitzen dut. Saiatzen naiz ez sufritzen, nire sufrimenduak ez duelako ezer aportatzen. Badakit gutxi falta zaidala bizitza hau bukatzeko, luzeena izanda ere. Azken urte argi hauek beste baretasun batean igaro nahi ditut, eta baretasun horretatik distantzia batera begiratu munduari. Horrela bizi nahi dut. Idatzi eta sortu ere bai, nire mailan. Idazten ere banabil, baina ez dut liburu gehiago argitaratuko. Sarean ipiniko dut, eta kito. Liburua argitartetzeak denbora darama. Urtebetean bueltaka ibiltzeko gogorik ez daukat. Tesitura horretan pozik nago. Osasunagaz zortea izan dut orain arte. Maiatzaren 3an 82 urte egingo ditut eta uste dut helduko naizela, Etxanon dagoen Santa Kurutzin egun-pasa egiteko asmoa dut eta.

IX. Landara eta Lorazaintza
Azoka 2023

GARAI
Apirilak 2

Gordetzeko zerbitzua egongo da eta erabiltzaileen artean zozketa egingo da (Durangaldeko produktuen otzara)

Antolatzaileak:

Laguntzaileak:

“Alderrayk gure ofizioaren alde ederra islatzen du, baita iluna ere”

Gaur 'Alderray' taularatuko dute Zornotza Aretoan, 20:00etan; Mikel Martínez eta Sandra Fdez. Aguirre dira protagonistak

ANTZERKIA • ARITZ MALDONADO

Tartean konpainiaren 'Alderray' barikuan helduko da Zornotzara. Erregistro aldaketa "nabarmena" du Alderray ipuin kontalariaren istorioa kontatzen duen lanak. Patxo Telleria arduratu da dramaturgiak eta antzezlanaz zuzentzeaz, eta ANBOTOK beragaz berba egin du.

Kontalariari gorazarre egin gura diezu 'Alderray'-n.

Neurri handi batean, istorio kontalaria naiz. Pertsonaia hau sortu nuenean, ni neu izan nintekeela konturatu nintzen, edo ofizio honetara dedikatzen den beste edozein, berdin. Istorioak kontatzeko grina du, ia obsesio ere bihurtzen zaio eta hori geuk ere sentitzen dugu gure haragitan, hori da ofizioak dakarren ordaina. Hau da nire ofizioa eta horregaitik kontatu gura nuen istorio hau.

Antzerkia zoragarria da eta mila gauza eder ditu, baina ondorio dramatikoak ere izan ditzake.

Alderrayk hori islatzen du. Gure ofizioaren alde ederra, baina baita iluna ere.

Urte asko daramatzazu zuk ere istorioak kontatzen. Zenbateraino du Alderrayk zugandik?

Gaur egun oso modan dago autofikzioa, baina, nire ustetan, idazten den edozer gauzatan beti dago idazlearen parte bat. Kasu honetan, oso

Nabaria da erregistro aldaketa, batez ere Mikel Martínez eta biok komediagaz lotzen gaituztenentzat

hurbilekoa da. Pertsonaiak ez du kontatu gura berari gertatzen zaiona, bestea kontatzen duen arren. Baina beragaz dagoen morroiak ofizioa ikasi gura du eta Alderray kontatzera bultzatzen du. Bien arteko gatazka da antzezlanaren motorea.



'Alderray'.

Erregistroz aldatu duzue.

Nabarmena da aldaketa. Bederatzi istorio kontatzen ditugu, eta denak desberdinak dira; batzuk dramati-koagoak, beste batzuk alaiagoak... Mikelen eta bion irudia komediagaz lotzen dutenek nabaritutako

dute, batez ere, erregistro aldaketa, ohiko komediaren ibilbidetik urruntzen garelako.

Iazko martxoan estreinatu zenuten. Zelako urtea izan da?

Jendea orokorrean konturatzen dabil kalitate berme bat duen an-

tzezlanaz dela. Istorio bakoitzak bere musika propioa du, eta horrek nortasun berezia ematen dio lanari. Antzerkia maite dutenek oso gogoko dute *Alderray*, baina, batez ere, istorioak kontatzea edo jasotzea gustuko dutenek.

Gai librean

Zenbait irakurgai interesgarri

«Euskaraz hobeto moldatzen diren 195.000 hiztun dauzkagu (%7), bi hizkuntzetan antzera moldatzen diren 222.000 (%8) eta beste guztiak, 2.230.000, erdaraz hobeto moldatzen dira (%85), nahiz eta horietako batzuek euskara ere jakin» (Iñaki Iurrebaso). «Horren guztiaren aurrean bi aukera dauzkagu: hitz-erdika jarraitzea edo eraginkorra goa izango den bide bat eraikitzea; estrategia berri bat diseinatzea» (Ibai Zabala). «Erabilera da orain benetan indartu behar dugun esparrua» (Iraitz Lazkano). «Jakin behar da zergatik dauden hizkuntza gutxituak eta zergatik dauden hizkuntza nagusiak. Ez da kasualitatea, eta tartean beti dago boterea: botere politiko-militarren eskutik joaten dira hizkuntza nagusiak, eta hizkuntza gutxituen kontra jokatzeko dute, bote-



Libe Mimenza Castillo
Kazetaria

Euskararen inguruko irakurketak hamaika. Kezkatzeko datuak zutabea betetzeko adina

Non daude euskararen gogoeta gune diren plazetan emakumeak eta gure begiradak?

re ekonomiko-politiko-militarrik ez daukaten komunitateen kontra» (Iñaki Martínez de Luna). «Herriek hitza dute» (Koldo Izagirre). «Gogoratu hizkuntza aniztasuna eta gure nortasuna lotuta doazela» (Beñat Garaio).

Sarea pil-pilean azken asteetan. Euskararen inguruko irakurketak hamaika. Kezkatzeko datuak zutabea betetzeko adina. Arretaz jarraitzeko hariak ere

bai, Manex Agirrek soziolinguistikaz astero argitaratzen dituen egin kasu, hala norabide berri baterako ponentzietan: Urbia lainopean egonda Aizkorriko tontorrera nola irits gaitzeko azaltzen du Jon Sarasuak bi orduko bideo batean —«sintesia» deitzen dio berak—.

Erreferentzia zinez interesgarrien artean ezin itaunari eutsi: non daude euskararen gogoeta gune diren plazetan emakumeak eta gure begiradak?

Auzia ez da sareko algoritmoak hobesten duen ikusezintasun patriarkala. Ausentziak ez du azkura eragiten. Batari eta besteari esleitzen diogun agentzia erakusleioha bezain desorekatua da sarri, eta gizon pentsalariengan bilatzen dugu oraindik iparra.

Batzuk —gehiegi— bizi daitezke triku esnatu dela ohartu gabe, komunitatea bere osoan aintzat hartu gabe. Hiki-komoriak zuentzat, antigonak guretzat.

Emakumeak gizonen joko sistema berdinagaz lehiatuko dira datorren eguenean hasiko den Mallabiko Biharko Izarrak txapelketan

Emakumeak lau eta erdian eta gizonak binaka arituko dira; pilotari guztiek guztien kontra jokatuko dute bietan, Mallabian ohikoa den joko sisteman



Biharko Izarrak txapelketako pilotariak eta antolatzaileak, eta Mallabiko Udaleko eta Bizkaiko Foru Aldundiko ordezkariak, astelehenean, Trabakua Behekoa jatetxean.

PILOTA • J.D.

Asteon Biharko Izarrak pilota txapelketaren 19. aldia aurkeztu dute Mallabian. Aurten hamasei gizon arituko dira binaka, eta lau emakume lau eta erdian, Mallabia I pilotalekuan. Emakumeen txapelketa iaz antolatu zuten lehenengoz,

lau pilotarigaz, baina hiru partidu baino ez zituen izan: finalerdi bi eta finala. Aurten ere lau pilotarik parte hartuko dute, baina txapelketak egitura sendoagoa du eta gizonen sistema berdinagaz arituko dira. Hau da, sei jardunaldiko ligaxka batean, denek denek kontra jokatuko dute eta hortik irtengo dira finalista biak. Protagonistak gaur eguneko pilotaririk onenatarikoak dira: Miren Larrarte, Amaia Aldai, Olatz Arrizabalaga eta Leire Garai. Emakumeen txapelketa apirilaren 27an hasiko da, Arrizabalagaren eta Aldairen arteko partiduagaz.

Gizonen txapelketari dagokionez, normalean baino pilotari gazteagoak gonbidatu dituzte. "Txapelketaren izenak dioen moduan, beti ahalegintzen gara pilotari gazteei ematen aukera, baina aurten ohi baino gazteagoak dira. Oso maila onean dabilta eta txa-

pelketa ederra eskainiko digute, seguru", adierazi zuen asteleheneko aurkezpenean Carlos Garciak, txapelketako antolatzaile batek.

Bizkaitar gutxi

Historikoki, Biharko Izarrak-en 24 pilotarik parte hartu izan dute gizonetan, baina iaz hamaseira murriztu zuten eta aurten kopuru horri eutsi diote. Pilotari gazteak bilatzea geroago eta gatzagoa dela eta harrobia geroago eta murriztagoa dela adierazi zuten antolatzaileek. Gabezia hori bereziki handia da Bizkaian. Aurtengo txapelketan ez dago Durangaldeko ordezkariarik, eta hiru baino ez dira bizkaitarrak: Xabi Rekalde dimoztarra, Aimar Ibarloza markinarra —iaz azpitxapeldun geratu zen Mallabian— eta Oier Hormaetxe lezamarra. Emakumeetan Olatz Arrizabalaga gernikarra eta Amaia Aldai dimoztarra dira Bizkaiko ordezkariak.

Gizonen txapelketa martxoaren 30ean hasiko da, honako partidu biek: Igoa-Ibarloza / Rekalde-Lazkoz eta De la Fuente-Apezetxea / Hormaetxe-Azpiroz. Ordutik aurrera eguenero egongo dira jardunaldiak, 21:00etan hasita. Finalerdiak eta finala ekainaren 1ean eta 9an izango dira, hurrenez hurren.

Imanol de la Sota, Ekaitz Molina, Imanol Torre eta Jon Ander Obeso 2. RFEF mailara igo dira Barakaldogaz

Durangaldeak ere izan du zer ospatu Barakaldoren igoeragaz, entrenatzailea eta hiru jokalaririk hemengoak dira eta



Eskerretik hasita: Imanol de la Sota, Ekaitz Molina, Imanol Torre eta Jon Ander Obeso, igoera lortu ostean.

FUTBOLA • J.D.

Barakaldo Hirugarren Mailatik Bigarren RFEF mailara igo zen joan zen asteburuan, Azkoitian Anaitasuna taldea 0-1 menderatuta. Luza-penean sartu zuen garaipenaren gola. Durangaldeak ere izan zuen zer ospatu igoera horregaz. Izan ere, Imanol de la Sota entrenatzaile iurretarra (santurtziarra jaiotzez), Ekaitz Molina eta Imanol Torre abadiñarrak eta Jon Ander Obeso durangarra bertan dabilta.

Urte batzuk Athleticen eman ostean, Imanol de la Sotak etapa berri bati ekin zion Barakaldon denboraldi hasieran, eta sekulako lorpena eskuratu du.

Ekaitz Molina erdilari abadiñarrak lehenengo denboraldia du Barakaldon. Partidurik gehienak titu-

lar jokatu ditu zelaian eman dituen 1.714 minutuek erakusten duten moduan. Bere ibilbidean igoera bat baino gehiago ospatu du 32 urteko erdilariak. 2018an, Bigarren B Mailara (gaur egungo Bigarren RFEFa) igo zen Durangoko Kulturalagaz, eta 2021ean Bigarren Mailara igo zen Amorebietagaz.

Imanol Torrek eta Jon Ander Obesok adin bera dute: biak 2000. urtean jaiotakoak dira. Torre Durangoko Kulturaletik joan zen Barakaldora, denboraldi hasieran. Bere postu naturala erdilaria da, baina aurten ezker hegalean jokatu du sarritan. Titular jokatzen hasi zen, harik eta oineko lesio batek hiletarako zelatik urrunduz arte. 884 minutu jokatu ditu Barakaldogaz denboraldi honetan.

Obesok Realaren egituraren eman ditu urterik gehienak. 2021ean Real Sociedad C taldetik batu zen Barakaldora. Beraz, aurtengoa bigarren denboraldia du bertan. Lesioen ondorioz, defentsa zentral durangarrak ezin izan du beste bien adina jokatu.

Yaiza Romero zornotzarra Bizkaiko txapeldun Euskadiko Apnea Txapelketan

Probetariko batean 4.01 minutu eman ditu uretan ahoz behera arnasarik hartu barik



Getxon apneako hiru modalitateetako parte hartu zuen.

APNEA • J.D.

Yaiza Romero 26 urteko zornotzarrak Euskadiko Apnea Txapelketan parte hartu zuen joan zen asteburuan Faturako (Getxo) igerilekuan, eta Bizkaiko txapeldun geratu zen. Horrela, iaz irabazitako txapela berri du Basauriko Glaukos klubean eta Cressi Team-ean dabilen kirolariak.

Itsasoa da bere inguru naturala. Urpeko arrantzan espezialista da eta gaur egun Espainiako azpitxapelduna da modalitate horretan. Baina, neguan, itsaso

zakarra egoten den urtarotan, itsasoa igerilekuagaitik ordezkatu eta apnea kirola praktikatzen du. Apnean hainbat modalitate dago, baina denek ezaugarri komun bat dute: ur azpian arnasarik hartu barik ahalik eta denborarik luzeena igarota egin behar dira.


Faduran hiru modalitate lehiatu zituzten eta Romerok hiruretan parte hartu zuen. Apnea estatiko izenekoan, 4.01 minutu eman zituen uretan ahoz behera arnasarik hartu barik.

Ondoren, 68,80 metro egin ziotuen bular-igeriketan arnasaldi bakarragaz. Azkenik, beste 78,80 metroan ibili zen igerian, kasu honetan hantetako hegatsen laguntzagaz. Hiru proba horietako marka konbinatuari eskerrak lortu zuen Bizkaiko txapeldun geratzea.

Aurtengo apirilaren 22an eta 23an Espainiako Apnea Txapelketa lehiatuko da, Oviedon, eta Romerok bertan parte hartuko du Euskadiko selekzioagaz, beste bost taldekideguz batera.

Elordik eta Morgaetxebarriak garaipena behar dute binakako finaletara sailkatzeko

Binakako Txapelketa Nagusiko eta Promozio Mailako finaletara sailkatuko dira asteburuko partiduak irabaziz gero



Aitor Elordi pilotari mallabitarra.

PILOTA • J.D.

Aitor Elordi mallabitarrak Binakako Txapelketa Nagusian eta Aimar Morgaetxebarria zornotzarrak Promozio Mailakoan partidu garrantzitsuak jokatuko dituzte asteburuan. Matematikak errazak dira: irabaziz gero, finalera sailkatuko dira, eta, bestela, kanpoan geratuko dira.

Elordik eta Jose Javier Zabaletak huts egin zuten finalera sailkatzeko lehenengo aukeran, joan zen asteburuan partidu orekatu batean Lasoren eta Imazen kontra 19-22 galduta. Domeka arratsal-

dean bigarren eta azken aukera izango dute Jokin Altunaren eta Xabier Tolosaren kontra, Bilboko Bizkaia pilotalekuan jokatuko duten partiduan.

Joanes Bakaikoak eta Morgaetxebarriak porrot batez hasi zuten finalerdietako ligaxka, baina joan zen asteburuan berriro bete-betean sartu ziren borrokan Salaberria-Etxebarria bikoteari 22-9 irabazita. Gaur arratsaldean Zabala eta Gascue menderatu behar dituzte Larraintzarko Ultzama pilotalekuan finalera sailkatzeko.

Jokaldia

Erronka berriak

Beti esan izan dut tren bat zure aurretik pasatzen denean tren hori hartu behar dela. Bai, horrelakoxea naiz ni, barrura salto egiteko joera dut.

Makina bat kontu ditut buruan: Tourra dela eta ez dela, gizonen eta emakumeen partaidetza kirolean parekatua izan behar dela eta horren alde lan egin behar dela, beste hainbat proposamen buruan bueltaka, eta beste asko etorriko direnak. Bada, azkenean ezin leku guztietara heldu! Hau komeria! Batzuetan pentsatzen hasi eta ez dakit nondik ateratzen dudan indarra. Honi eta hari aurpegi irribarre bat erakutsi, atsegina izaten saiatu eta aurrerantz egiten dut beti, zeregin guztiak lepo gainean hartuta. Bada, erronkei buruz nabileraz hona



Eneritz Iturriaga
Mazaga
Txirrindulari ohia

Hamar egun barru Fermin eta Abraham Olanoren ondoan egongo naiz ETBn, Itzuliko komentaria lanetan

Lasterketa guztiak ikusten nabil dena ondo prestatzeko eta ikusten ari zaretenoi hutsik ez egiteko

proposatutako bat: iaz, ETBra joateko deitu zidaten, Itzulia komentatzera, baina justu Leonen lasterketa nazionala lehiatzen genuen eta ezin izan nintzen hemen egon. Baina aurten berriro ere deitu didatenean, poz-pez erantzun nien baietz, egingo nuela komentaria lana. Hamar egun barru Ferminen eta

Abraham Olanoren ondoan egongo naiz ETBn, Euskal Herriko Itzuli guztian. Baina orain, eguna hurreratzen dabilen heinean, antza barruan gordeta nituen kezka eta beldurrak kanporatzen hasi zaizkit: izango ote naiz berba ondo egiteko kapaz, txirrindularien lana eta lasterketaren nondik norakoak itxuraz aztertuko ote ditut... eta hori guztia gutxi balitz, gizonezko txirrindularitzaren gainean berbetan ibiliko naiz, nire eguneroko esparrua emakumeen txirrindularitza denean. Eroriz ikasten omen da oinez, eta lasterketa guztiak ikusten nabil, dena ondo prestatzeko eta zuei, ikusten ari zaretenoi, hutsik ez egiteko. Bakarrik esan nahi dizuet dena emango dudala nire lana ahalik eta ondoan egiteko eta espero dudala kontu eta anekdota bat baino gehiagorekin ondo pasatzea denok.



ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com



AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ez. • 48200 DURANGO



ISD Inmobiliaria
del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com



Fernando Uribe
AGENCIA INMOBILIARIA
Barrenkalea, 15 behe • DURANGO
Tel.: 946 816 423 • www.fernandouribe.es

// AUKERA

DURANGO: Apartamentua. Erdi berria. Logela, komuna eta egongela. **C.E.E= F. 142.500 €**

IURRETA: Santa Maña: 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. 15 m²-ko trastelekua. Aparkaleku pribatua. **C.E.E=F 130.000 €**

ZALDIBAR: 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela handia. Terraza. Igogailua. Etxe osoak kanpora ematen du. garajea. **C.E.E.=F. 157.000 €**

MATIENA: 2 logela, komuna, sukalde handia. Igogailua. **C.E.E=F.129.000€**

ZALDIBAR: Berriztatua. 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela. 2 terraza. **C.E.E=E 105.000 €**

// ETXEBIZITZAK SALGAI

UNDATORRE: 2 etxebizitza bat eginda. 4 logela, 2 komun, sukaldea, jangela eta egongela. Trastelekua. **C.E.E=G 185.000 €**

ZALDIBAR: 2 logela, 2 komun, sukaldea, eskegitokia eta egongela terrazarekin. Trastelekua eta garajea. **C.E.E= D. 189.000 €**

ABADIÑO: 2 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Terraza. Etxe osoak kanpora ematen du. Garajea eta trastelekua. **C.E.E=E 190.000 €**

ARTZETAGAN: 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Terraza. garajea eta trastelekua. **C.E.E=E 226.600 €**

SAN FRANZISKO: 3 logela, komuna, sukaldea balkoiarekin eta egongela. Ikuspegi ederrak. Eguzkitsua. Garaje itxia. **C.E.E=E 195.000 €**

ASKATASUN ETORBIDEA: 95 m². Erdialdean. 3 logela, 2 komun, sukaldea, despentsa eta egongela. BERRIZTATUA/BERRIA. **C.E.E=E 290.000€**

ZALDIBAR: 95 m². 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. 2 terraza. garajea. **C.E.E=F 199.000 €**

ZALDIBAR: Alokairuan erosteko aukerarekin. 80 m². Erdialdean. 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Terraza. Ganbara eta 2 kotxerentzako garajea. **C.E.E=F 179.000 € / 650€**

MARTXOAREN 8'KO: Erdi berria. 3 logela, 2 komun, sukaldea, eskegitokia eta egongela. Balkoia. Garaje itxia. **C.E.E.= E. 318.000€**

ANBOTO: 3 logela, komuna eta egongela. Eguzkitsua. **C.E.E=E. 190.000 €**

FAUSTE BIDEA: 4 logela, komuna, sukaldea, egongela. Despentsa-trastelekua. Ganbara komunitarioa. Etxe soloak kanpora ematen du. Eguzkitsua. **C.E.E: G. 156.000€.**

HERRIKO GUDARIEN: 107 m². Erdialdean. 3 logela, 2 komun, sukaldea. Esekitokia. Terrazadun egongela. Ganbara, garajea eta trastelekua. Hab. 2 baños. Cocina. **C.E.E.: E**

ABADIÑO: 150 m²-ko terraza. Erdi berria. Trastelekua eta garajea. **C.E.E=E 309.000 €**

// ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO: Herriko Gudarien kalea. 3 logela, egongela balkoiarekin, sukaldea, despentsa eta 2 komun. Garajea. Trastelekua. Ganbara.

DURANGO: Astepe auzunean. 3 logela, egongela, sukaldea, eskegitokia eta 2 komun. Garajea eta trastelekua. Argitsua. Pisu altua.

DURANGO: Antso Estegiz. Izugarritzko adosatua salgai. 3 logela eta 4 komun. Lorategia. Terraza. Txokoa. Ezin hobeia.

ABADIÑO

ABADIÑO: Iturritxo kalea. 3 logela, 2 komun, egongela-jangela, sukaldea eta despentsa. Ganbara. 2 garaje eta 2 trasteleku.

BERRIZ

BERRIZ: 2 logela, egongela terrazarekin, sukaldea eta komuna. Garajea eta trastelekua.

BERRIZ: 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea.

ATXONDO: 2 logela, komuna, sukaldea eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.

//LURSAILAK SALGAI

IURRETA: 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

//BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

IURRETA: Orozketa auzoa. Baseri erdia salgai. Ikuspegi zoragarria. 3.000 m²-ko lursailarekin. Durangotik oso gertu.

BERRIZ: Andikona auzoa. Baseri ikusgarria, berriztatzeko. Teilatua eta estruktura eginda. Ikuspegi ederrak. 7 hektareako lursailagaz.

BERRIZ: Eitua auzoan. Baseri ederra. Berriztatzeko. Lursail ederra inguruan. Kokapen eta ikuspegi politik.

ATXONDO: AXPE. Baseri ederra salgai. Berriztatzeko. Kokapen izugarria

ATXONDO: ARRAZOLA. Izugarritzko baserria salgai. 40.000 m²-ko lur saila. Berriztatzeko.

MAÑARIA: 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160 m² solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

MENDATA: Lamikiz auzunea. Bizitza biko baserria. Berriztatzeko. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.

DURANGO: Adosatu ederra, izkinakoa. Guztiz jantzita. Estreinatzeko.

//BULEGOAK ALOKAIUAN

ABADIÑO

30 m²-tik gorako bulegoak. 350 €-tik hasita. Argia eta wifia barne.

//GARAJE ITXIAK SALGAI

Durango, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.

//LOKALAK ALOKAIUAN

Alde Zaharrean, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

www.inmoduranguesado.com



DURANGO 70 m²
3 logela

SAN FAUSTO: Egongela, sukalde jantzia, 3 logela, despentsa eta komuna. Etxe osoak kanpora ematen du (mendebaldea). Leku onean kokatua. Zonalde berdeak eta aparkatzeko erraztazuna. Egoera onean.

139.000 € C.E.E: F



DURANGO 57,59 m²
3 logela

TABIRA KALEA: Egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta komuna. 2 balkoi. Etxe osoak kanpora ematen (ekialde-mendebaldea). Leku onean kokatua. Zonalde berdeetatik eta erdigunetik gertu. Herriko sarrera eta irteeratik gertu. Egoera onean. Ur instalazioa eta instalazio elektrikoak berriztatua.

184.000 € C.E.E: G



DURANGO 90 m²
3 logela

ZABALE: 1.989. urtean eraikia. Halla, egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du. (ekialde-mendebaldea) Argitsua. Altua. Leku onean kokatua. Zonalde berdeak eta zerbitzuguneak. Egoera onean. Garajea.

315.000 € C.E.E: Bidean



DURANGO 85 m²
3 logela

MARTXOAREN 8'KO: 2.008.urtean eraikia. Egongela handia, sukalde jantzia, 3 logela, 2 komun eta eskegitokia. Balkoia. Igogailua. Etxe osoak kanpora ematen du (ekialde-mendebaldea) Argitsua. Herriko sarreratik gertu, zonalde berdeak eta zerbitzuguneak. Ezin hobeia. 18 m²-ko garaje itxia.

318.000 € C.E.E: E



IURRETA 70 m²
3 logela

DANTZARI: Egongela, sukaldea, 3 logela, komuna eta galeria. Etxe erdiak kanpora ematen du (ekialde-mendebaldea). Leku onean kokatua, erdigunean. Berriztatzeko.

104.000 € C.E.E: G



MATIENA

ERAIKUNTZA BERRIA: 91,05 m²-tik aurrera. 3 eta 4 logela. Kalitate oneko materialak. Garajea eta trastelekua barne. Estreinatzeko.

254.900 €-tik aurrera

//DURANGO

ANTSO ESTEGIZ: 2 logela, sukaldea balkoiarekin, egongela eta komuna. Trastelekua eta igogailua. **192.000€/ E.E.Z= F**

ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea, egongela, despentsa eta 2 komun. Igogailua. Garajea eta trastelekua. **320.000 € / E.E.Z=E**

ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea eskegitokiagaz, egongela eta 2 komun. Igogailua. Garaje itxia. **LEHEN 280.000€ ORAIN 250.000 € / E.E.Z=E**

JOSEMIEL BARANDIARAN: Logela, egongela, sukaldea balkoiarekin eta komuna. igogailua. garajea eta trastelekua. **300.000€ / E.E.Z=D**

BARRENKALEA: 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. **145.000 € / ORAIN 138.000€ E.E.Z=G**

BARRENKALEA: Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. **350.000 € / E.E.Z=F**

JUAN DE OLAZARAN: 3 logela, sukaldea balkoiarekin, egongela eta 2 komun. Igogailua. Trastelekua eta garajea. **385.000 € / E.E.Z=B**

SAN FRANZISKO: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Garaje itxia. Igogailua onartuta. **195.000 € / E.E.Z=E**

SANTIKURUTZ KALEA: Etxebizitza bifamiliarra eraikitzeko 600 m²-ko lurzorua. **LEHEN 640.000 € / ORAIN 550.000 €**

//ABADIÑO

MUNTSARATZ AUZOA: Baserria. 2.750 m²-ko lur sailarekin. 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Ganbara eta balkoia. **390.000 € / E.E.Z=D**

//BERRIZ

BERRIZBEITIA: 2 logela, sukaldea, despentsa, egongela eta komuna. Balkoia. **LEHEN 100.000 € / ORAIN 95.000€ E.E.Z=G**

MURGOITIO AUZOA: Berreraikitze baserria lurzoruagaz. **290.000 €**

PADURE: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. **LEHEN 125.000€ ORAIN 99.300 € / E.E.Z=F**

//GARAI

MOMOITIO AUZOA: Etxebizitza eraikitzeo lursailak. Aukera ezberdinak.

//IURRETA

DANTZARI KALEA: 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. **153.000 € / E.E.Z=E**

//IZURTZA

ELIZALDE AUZOA: 4 solairuko etxea. 3 logela, 3 komun, sukaldea, garbitokia eta egongela. Terraza. Lorategia eta garajea. **620.000 € / E.E.Z=E**

//OTXANDIO

OTXANDIO

ZELAIETA AUZOA: Baserria. 40.355 m²-ko lursaila. 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Balkoia. **LEHEN 348.000€ /ORAIN 280.000€ E.E.Z=BIDEAN.**

//GARAJEAK SALGAI

Durango eta Iurretan, aukera desberdinak: garaje itxiak, partzelak eta partzelak trastelekuarekin.

//BERRIAK ALOKAGAI

Etxebizitzak, bulegoak, pabilioiak, lokal komertzialak eta garajeak. Bulegoan galdetu.

ZALDIBAR

BOLATOKI KALEA: 2 logela, sukaldea, egongela balkoiarekin eta komuna. Igogailua. **130.000 € / E.E.Z=G**

Botikak

BARIKUA, 24 · 09:00-09:00

SARRIA,
SASIKOA 17 - DURANGO

GUTIERREZ,
TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

ZAPATUA, 25 · 09:00-09:00

UNAMUNZAGA,
MURUETATORRE 2C - DURANGO

RUIZ,
EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA

09:00-13:30

SARRIA,
SASIKOA 17 - DURANGO

CAMPILLO,
MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO

GAZTELUMENDI,
J.A. ABASOLO 2 - DURANGO

BAZAN,
URIBARRI 5 - DURANGO

NAVARRO,
ARTEKALEA 6 - DURANGO

DE DIEGO,
INTXAURRONGO 22. - DURANGO

BALENCIAGA,
EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO

SANTAMARIA,
ERREKAKALE 6. - ELORRIO

FARMAZIA MATIENA,
TRAÑABARREN 15. - ABADIÑO

GUTIERREZ,
TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA

GOIRIA,
SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

MELERO,
SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA

09:00-14:00

IRIGOIEN,
BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

DOMEKA, 26 · 09:00-09:00

CAMPILLO,
MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO

RUIZ,
EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

ASTELEHENA, 27 · 09:00-09:00

GAZTELUMENDI,
J.A. ABASOLO 2 - DURANGO

RUIZ,
EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

MARTITZENA, 28 · 09:00-09:00

ETXEBARRIA,
MONTEVIDEO ETORB. 2. - DURANGO

RUIZ,
EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL
15 - ZORNOTZA

EGUAZTENA, 29 09:00-09:00

BAZAN,
URIBARRI 5 - DURANGO

RUIZ,
EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

EGUENA, 30 · 09:00-09:00

DE DIEGO,
INTXAURRONGO 22. - DURANGO

RUIZ,
EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENeko 14:00AKARTEKO EPEA

GOZATU GOZOTEGIA

Zorionak
guztioi!



Zorionak, **Haizea (929. alea)**! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9an.

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
661 40 14 00
gozatudurango@gmail.com
Gozatu Gozotegia
gozaturgozotegia



Zorionak, **Gaizka**. Jarraitu hain jator. Asko maite zaitugu etxeko guztioi! Besarkada erraldoiak eta mosuen zaparradie zuretzako. Muuuu!



Zorionak okerroi zure bigarren urtebetetzi! Jarraitu eizu zure barretxu horraz gure egunak alaitzen. Mosu haundi bat etxeko danez partez!



Maiztegiko LH 1eko ikasleek Anboto bisitatu dute.



Zorionak, **Peio!** Oso ondo pasa zure egunean. Jarraitu beti bezain alai. Muxu potoloak familia osoaren partez.



Martxoaren 14an 9 urte egin dozun neskatxoari mosu potolo bat Zaldibarreko amama, aittite, izeko, osaba eta Urkoren partez.



Martxoaren 14an 4 urte egin zenituen. Zorionak eta mosu potolo bat Zaldibarretik.



Zorionak, hirukote, familia osoaren partez. Eskerrik asko ematen dozuen poztasunagatik. Maite zaituztegu. Muxutxu pila



Zorionak, lurretako **Naia Rementeria**, zure 13. urtebetzean. Oso neska jatorra zara eta oso harro gauz zutaz. Primeran pasatu zure egune! Asko disfrutatu lagun eta familiakin. Mosu asko amaren, aitaren, Jonen partez, eta Arrianditik.



Martxoaren 16an 12 urte egin zenituen. Mosu pilo bat Zaldibarretik.



80 amandhe
HELDUENTZAKO IPUINAK

Dorieta Kortazar

MARTXOAK 31, 19:00ETAN
IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKAN

Sarrera gonbidapenarekin, lekua gordetzea nahi baduzu:

94 681 27 26 biblioteca@iurreta.eus

WhatsApp edo Telegramez 688 86 37 36



Arrike
Liburudenda

Kalebarria z/g - Durango
Tel.: 946 201 893
Faxa: 946 816 403

Bulegorako zigiluak
Fotolitoak

Betikoak
flexografia

946 202 241
Bixente Kapanaga, 9
48215 IURRETA

"Erraldoiek lilura eta beldurra eragiten dituzte; baita ikusmina ere"

Etxanoko Andra Mari Berri auzo elkarteak erraldoien mundura hurbiltzeko tailerra antolatu du Etxanoko frontoian, umeei zuzenduta. Martxoaren 25ean izango da, 17:30ean hasita



Pablo Monasterio Agirre

Danbor-jolea

ZORNOTZA | 1970

Ibon Negreira Santa Maria

Gaiteroa

GALDAKAO | 1977

ZORNOTZA • AITZIBER BASAURI

lazko Euskal Herriko Doinuak kultur astearen barruan, Etxanoko erraldoiak sortu zituzten: Miru, Etxanoko Agintaria, Tartalo, Basajaun, Akerbeltz, Galzagorri, Sorgina eta Mari. Etxanoko erraldoiak. Auzoaren inplikazioagaz sortu zituzten, urtean zehar garatutako zenbait tailerretan. Orain, interesa duten ume guztiei zabaldu gura diete erraldoien mundura hurbiltzeko aukera, Pablo eta Ibonen berbetan. Horretarako, hiru tailer antolatu dituzte (etxanokoausoelkarte@gmail.com).

Etxanoko erraldoi txikien konpartsa sortu duzue. Zer dela eta?

Pablo Monasterio: Bagabiltza endredatzen, bai! Ume gehiago batzen bada

eta guk ere jarraitzen badugu, konpartsa ere sortuko dugu. Umeak, eta orokorrean auzoa, dantzara erakartzeko modu ona izan zitekeela pentsatu genuen; erraldoiek umeak erakartzen dituzte eta dantza egiten dute. Gainera, altxorra genuen bertan: Unax Negreiro, Ibonen semea.

Ibon Negreiro: Semeak 9 urte ditu eta betidanik gustatu zaizkio erraldoiak. Deustuko Ondalan konpartsan ibilia ere bada. Haren bitartez hurbildu nintzen erraldoietara, orain zazpi urte.

P.M.: Konturatu orduko materialaren bila hasita geunden.

Unaxek gidatuko du tailerra zapatuan.

I.N.: Berak eta Zornotzako beste mu-

tiko bik: Unaxek eta Beñatek; erraldoien munduan murgildurikoak hauek ere. Hiruren artean teknika,

Erraldoi txikiak ez dute pisu handirik, nahiko errazak dira eramateko. Bada, dantza ikastea da kontua

erraldoien dantza... erakutsiko dituzte. Umeei erraldoietara hurbiltzeko aukera ematea da helburua.

P.M.: Erraldoi txikiak ez dute pisu handirik, nahiko errazak dira

eramateko. Bada, dantza ikastea da kontua. Handiak maneiatzeko, teknika gehiago behar da.

I.N.: Teknika behar dute, bai, baina berezkoa ere badutela esango nuke.

Dena dela, zuek erraldoiak dantzan jartzeaz arduratzen zarete.

I.N.: Bai. Erraldoiei laguntzen dieten musikariak gara. Istorio honek guzti honek eraman gaitu ni gaitero lez aritzera eta Pablo danbor-jole.

P.M.: Ez da erraza, baina lan polita da. Dena dela, lan handia dugu oraindino egiteko.

Zuek ez duzue erraldoiekin hartu-emanik izan. Beraz, hutsetik hasi zarete. Nondik ekin zenioten?

I.N.: Deustuko Ondalan konpartsa bisitatu genuen eta Bermeoko Erraldoien Konpartsatik ere gonbidatu gintuzten euren erraldoi txikiak ikustera. Haien eskutik batu dugu informazioa. Bermeora dantzak ikustera joan ginen, metro eta guzti neurriak hartzeko.

P.M.: Hernaniko Erraldoien Konpartsakoekin ere egon ginen.

Pertsonaia mitologikoak erabili dituzue erraldoiak sortzeko. Noiz irteten dira?

P.M.: Bai, umeentzat erakargarriak izango zirela pentsatu genuen. Baina Etxanoko Agintaria ere hor dago, eta auzoko hockey taldeko maskota ere bai, zelan ez! Miru.

I.N.: Azaroan aurkeztu genituen, baina Zornotzako jaien txupinazoan atera ziren lehenengoz. Oso polita izan zen. Etxanoko jaiak etorri ziren gero, eta, irailean, Bermeora joan ginen. Orain dela gutxi Markinan egon gara.

Askotariko erreakzioak ikusiko zenuzuten.

P.M.: Erraldoiek lilura eta beldurra eragiten dituzte aldi berean; baita ikusmina ere. Dantzan daudenean benetakoak dirudite, eta hainbat emozio sortzen dute umeengan.

Zer bide hartuko dute Etxanoko erraldoiek?

I.N.: Umeak erakartzea eta ahal den neurrian jaietara irtetea, horixe da asmoa, besterik barik.

P.M.: Gaztetxoan eta helduen artean hari bat egotea garrantzitsua da, erraldoientzat, musikarentzat, herriarentzat... kate horri eusteko moduak eta momentuak sortu ezean galdu egingo dira.

Lau-hortza

Ibai Zabala Gandarias Irakaslea



Obedientzia

"Bizitza aprobetxatu ein biok, Ibai; bat baño ez jaukau eta!" esan zidan aurreko batean lagun batek. Arrazoirik ez zaiola falta iruditu zitzaidan, bizitza, heriotza bezala, behin bakarrik bizi daitekeen zerbait baita. Baina, zer ezkututzen da mezu horren atzean?

Sistemak, bizitza aprobetxatzea, argiaren abiaduran bizitza dela esan digu, egunerokoa soseguz betetzea denbora alferrik galtzea dela. Sosegu hori bilatuz gero, Karibeko hondartza bateraino joan beharra dagoela; bertan baino ez dela aurkitzen, ez egun eguzkitsu batean herriko erreka kontrako bankuan. Eta sinetsi egin dugu.

Ez gara konturatzen, baina sistemak berak idazten digu aurretiaz gure egunerokoa: zer ikasi, zer ikusi, zer nahi, nola bizi. Eta horretaz jabetu ordez, nahiago dugu inoiz baino askeagoak garen gezurra sinestea, askoz erosoagoa baitzaigu hala bizitzea: gidoia jarraituz.

Eta gidoi horrek, presaka bizitzeaz gain, bakoitzak bere kolkora begiratu behar duela diosku. Ahaztu egin behar dugula amets kolektiboaren garai hura, non taldearen proiektuak eta norbanakoaren ametsak bat egiten zuten, baita elkar elikatu ere. Burutik kendu behar dugula gure herriaren eta hizkuntzaren aldeko borroka, jarrera itxiegia, primitiboegia, barbaroegia dela hori egun bizi garen gizarte globalizatu eta moderno honetan. Eta onartu egin dugu.

Leire Bilbao idazle ondarroarrak esaldi bakarrean eta ezin hobeto laburbiltzen du guztia: "Ametsak agintzen ziguten lehen, ez amesteko agintzen digute orain". Eta guk, nola ez, obeditu.

SAN ROKE BARRIA

sukia
Zure etxean zaude Estás en tu casa



Proiektu berria Durangon, efizientea eta terraza zabalekin.

INFORMAZIOA

946 46 20 41
www.sukia.com